

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2022ko iraila / 330. zenbakia

www.oñati.eus  



Irailean irekiko da

Azken egokitze-lanak amaitu, eta ezustekorik ezean, jaiak aurretik irekiko ditu atea Araozko ostatuak.



Bi solairu ditu Araozko ostatuak. Behe solairuan taberna, jantokia (40 bat lagunentzako), sukaldea eta apartamentu irisgarri bat ditu. Goko solairuan beste hiru apartamentu.

» Itziar Mondragon Azkarraga

"Ostatua irekitzeko irrikitan gaude"

Irailean zehar zabalduko ditu atea Araozko ostatuak

Ez du data zehatzik eman nahi, baina ustekabe handirik ez bada, irailean zehar irekiko ditu atea Araozko ostatu berriak. Berau ustiatzeaz arduratuko den Itziar Mondragon arrasatearrarekin hitz egin dugu.

Ia bi hilabete igaro dira Araozko ostatua ustiatzeko kontratua sinatu zenuenetik, eta oraindik ez duzue ireki. Zer dela eta?

Abuztuan zehar edo, beranduen, irailerako ostatua zabalik egotea zen gure asmoa, baina arazoak izan ditugu argindar hartunearekin, eta horrek atzerapena eragin digu. Irailarekin batera tramite horiek guztiak azkartzea espero dut, eta gure nahia da ahalik eta azkarren zabaltea. Ez naiz datarik ematera ausartzen, baina irailaren 28a urtebetetze eguna dut, eta ordurako behintzat nahi nuke, opari gisa, eta, ahal bada, lehenago.

Zein zerbitzu eskainiko ditu Araozko ostatuak?

Alde batetik, taberna-jatetxe zerbitzua. Poliki hasiko gara, plater konbinatuak, errazioak, ogitartekoak eta mokadutxoak ematen. Oñatitik Arantzazura bidean bada menua edo karta eskaintzen duten jatetxe ugari, eta gurea gehiago izango da merendero erakoa. Aurrerago, beharbada, 'Eguneko platera' eskaintzen hasiko gara, baina, poliki poliki, ostatuak daraman martxa ikusi ondoren.

Bestalde, hiru apartamentu alokatzeko aukera ere egongo da, horietako bat irisgarria, behe solairuan, mugikortasun arazoak dituztenentzat

Uda partean, egun guztietan egongo da zabalik ostatua, asteleheneetik igandera; negu partean asteazkenetik igandera zabalteko asmoa dugu, baina hori ere aurrerago zehaztuko dugu, mugimendua eta eskaria ikusi ahala. Apartamentuak urteko 365 egunetan egongo dira alokagai.

Prezioak finkatu al dituzue?

Bai. *Andarto* izeneko apartamen-



« **Beti gustatu izan zaizkit hurbileko tratua ematen duten ostatu txikiak, eta hau amets bat bezalakoa da niretzat. Ilusio eta gogo handia daukat proiektu hau aurrera ateratzeko.**

tuak, goiko solairuko handienak (5 pertsonentzako), 120€ balioko du eguneko, goi-denboraldian; behe-solairuko apartamentu irisgarriak, *Aitzulo* izenekoak, 110€, eta goiko solairuko *Ugastegi*-k 90€, goi-denboraldian beti ere.

Laugarren apartamentua, *Aloña* izenekoak, gure bizilekua izango da.

Ez daukazu esperientziarik ostalaritzan, baina, hala ere, animatu egin zinen Araozko ostatua ustiatzeko deialdia ikusi orduko. Zergatik?

Nire senarraren arrebak jatetxe bat dauka Hernanin eta, tarteka, laguntzera joan izan gara. Bestalde, uda honetan bi aste eman ditugu nire lagun baten jatetxean, nola funtzionatzen duen ikusten.

Egia da ez daukagula esperientzia handirik ostalaritzan, —nik arrandegietan lan egin izan dut—, baina ilusio eta gogo handia daukat proiektu hau aurrera ateratzeko. Beti gustatu izan zait asko nekazalturismoa, hurbileko tratua ematen duten ostatu txikiak, eta hau amets bat

bezalakoa da niretzat. Ostatua irekitzeko irrikitan nago.

Bion artean eramango duzue ostatua?

Bai, hasieran behintzat Xabier (senarra) eta biok hasiko gara, eta ikusiko dugu, poliki poliki, nahikoa den ala jende gehiago behar dugun.

Nola egingo duzue ostatuaren zabalkundea?

Webgune bat prestatzen ari gara. Ostatuari azken garbitua eman, apartamentuak jantzi eta argazki polit batzuk ateratzea falta zaigu, bertan eskegitzeko.

Erreserbak online egiteko aukera egongo da, *Nekatur*-en bitartez, eta *link* batzuk ere egongo dira, inguru hauetan egin daitezkeen ibilaldien inguruko informazioarekin.

Apartamentu irisgarri bat daukagula kontuan hartuz, egokitutako ostatuaren sarean izena emateko asmoa ere badugu, eta sare sozialetan ere joango gara, poliki poliki, gure zerbitzuen berri ematen.

Zein eratako bisitariak espero edo aurreikusten dituzu?

Mendizaleak, familiak... bakea eta lasaitasun giroa gustuko duen jendea, batez ere.

Inguru hauetan mendi ibilaldi ederrak egiteko aukera dago, eta hori da, nire ustez, ostatu honen indargune nagusia. Gainera, apartamentuak oso politak dira, eta jantzi ondoren oso goxo geratuko dira.

Aurrerago, bizikleta elektrikoak alokatzeko zerbitzua ere eskaini nahi dugu. Udazkenean ostatu inguruko urbanizazioa berritzeko asmoa du Udalak, eta lan horiek

BOST URTERAKO KONTRATUA

Eskoriatzan bizi den Itziar Mondragon Azkarraga arrasatearrak ustiatuko du Araozko ostatua, Xabier senarrarekin batera. Berea izan zen Udalaren deialdira aurkeztutako eskaintza bakarra. Bost urterako kontratua sinatu du Udalarekin, beste bost urtez luzatzeko aukerarekin. Lehen urtean 1.550 euroko errenta ordainduko du hilero, eta %2ko igoera aplikatuko zaio urtero.

Bost urte eta 900.000 euro inguruko inbertsioa behar izan da Araozko neskatilen eskola (1934-1971) izandako eraikina ostatu bihurtzeko. Eraikina egoera okerrean zegoela ikusirik, barrutik hustu eta teilatu berria egin zioten auzotarrek 2015ean. Ondoren, eskola zaharra ostatu bihurtzeko proiektua aurrera ateratzeko hitzarmen markoa adostu zuten Araozko auzoak eta Udalak 2017an.

Ostatua egokitzeko lanak fase ezberdinetan burutu dira. Auzotarrek 200.000 euro jarri dituzte, Udalak beste horrenbeste, eta gainerakoa Eusko Jaurlaritzak. Foru Aldundiak ere ipini du zati txiki bat.

Udala izan da obraren sustatzailea, eta lanak burutu ondoren auzoak eraikinaren lagapena egin dio 10 urterako. Epe hori amaitzean auzoaren esku geratuko da berriz ere, baina auzoak ezingo du eraikina saldu 20 urtetan, gutxienez, obrak amortizatu arte.

Araozko ostatu berriak bi solairu dauzka. Behe solairuan taberna, jantokia (40 bat lagunentzako), sukaldea eta apartamentu irisgarri bat ditu. Goiko solairuan beste hiru apartamentu.



Uztailaren 8an sinatu zuten
ustiapen kontratua



Idea eta egitasmo asko ditut buruan, eta auzotarrek egiten dizkiguten proposamen guztiak aztertu eta, ahal den neurrian, aurrera ateratzen saiatzeko prest gaude

aprobetxatuz, bizikletentzako aparkalekutxo bat egokitzea ere gustatuko litzaiguke, konponketa mekanikoak egin ahal izateko oinarriko azpiegiturarekin.

Baikor sumatzen zaitut.

Bai, gogotsu gaude ostatua ireki eta, poliki poliki, ekimen ezberdinak abian jartzeko, auzotarrek elkarlanean. Dagoeneko, ostiraletan *Pintxopotea* egitea adostu dugu, eta auzoko argazki zaharrak ipiniko ditugu ostatuko hormak apaintzeko.

Idea eta egitasmo asko ditut buruan. Formatu txikiko musika edo dantza emanaldiak, argazki edo pintura erakusketak, bertso afariak, trikiti bazkariak, pilota partiduak... Ondo legoke hilean

ekitaldi pare bat antolatzea, giroa sortu eta auzoari bizitza emateko, horixe baita azken helburua; auzoa biziberritzea, eta bisitariei zerbitzua ematea.

Ildo horretan, auzotarren eta herritarren proposamen eta iradokizun guztiak aztertu eta, ahal den neurrian, aurrera ateratzen saiatzeko prest gaude gu.

Bestalde, lagungarria litzateke, —hala eskatu diogu Udalari—, Oñati eta Arantzazu arteko autobusa Araotzeraino ere iristea. Interesgarria litzateke, adibidez, goizeko 8 edo 9etako zerbitzua honaino igotzea, eta eguerdiko ordubietan-edo goitik beherakoa hartu ahal izatea, jendeak mendi buelta bat egiteko aukera izan dezan. ■

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



ELIKADURA, NATURA eta ONGIZATEA uztartzeko tailerrak, herritar guztiei irekiak

Amaia Díaz de Monasterioguren eta Amaia Ayerbe nutrizionistek, Natur Eskolarekin elkarlanean, tailer bat eskainiko dute hilero, urritik aurrera.

Elikadura ardatz hartuta eta naturarekin bat eginez, gure ongizatea hobetzeko behar ditugun erremintak eskuratzea da helburua.

Naturaren erritmoak errespetatuz, elikadura eta kontsumo ohitura osasuntsu eta jasangarriak sustatzea, eta, horri esker, gure osasuna eta ongizatea hobetzea eta natura zaintzen ikastea. Horixe da, esaldi batean laburbilduta, Amaia Díaz de Monasterioguren eta Amaia Ayerbe nutrizionistek, Oñatiko Natur Eskolako lantaldearekin batera, urritik aurrera eskainiko dituzten tailerren helburua. Udaleko Ingurumen departamentuaren babesa duen ekimena da, eta hilero tailer bana emango dute,

urrian hasi eta hurrengo urteko irailera arte.

Garbi dagoena da, gure elikatzeko moduak eragin zuzena daukala, bai gure osasunean, eta baita ingurumenean ere. Horregatik, oso inportantea da naturaren erritmoak errespetatuko dituen elikadura eta kontsumo ohitura jasangarriak sustatzea. Naturaren parte gara, eta bertatik jasotzen ditugu jaten ditugun elikagaiak. Horregatik, elikagai osasuntsuak jan nahi baditugu, ezinbestekoa da lurra bera ere osasuntsu

egotea.

Tamalez, baina, gure egunerokoan naturatik oso deskonektatuta bizi gara, eta hortik datoz gure ongizateak, gure oreka fisiko, mental eta sozialak dituen aje edo gaitzetako asko.

Beraz, naturarekin konektatzea eta horrek duen garrantziaz kontzientziatzea izango da Díaz de Monasterioguren eta Ayerbe nutrizionistek eskainiko dituzten tailerren helburu nagusietako bat. Konturatzea natur baliabideak ezinbestekoak direla osasuntsu eta

zoriontsu bizitzeko, baina zaintza ere zor diogula naturari. "Horretaz jabetzen garen momentuan aurrera-pauso handia emango dugu gure auto-zaintzan, eta konturatuko gara gure ongizatea geure esku ere badagoela, hein handi batean", azaldu digute ekimenaren sustatzaileek.

Elikadura kontzientea sustatzea da, azken batean, ekimen honen helburua: ingurumenaren eta gizakion ongizatearen arteko erlazioa ulertu, garaian garaiko barazki eta fruituen ezaugarriak ezagutu, elikagaiak nola ekoiztu eta nola kozinatu behar diren ikasi, elikadura eta emozioen arteko lotura.... "Elikadura eta natura ardatz harturik, gure osasuna era oso batean zaindu, osatu eta osotzeko erremintak eskuratzea da helburua", azaldu digu Diaz de Monasteriogurenek.

Gure osasuna natur baliabideen kontserbazioari gutiz loturik daudela ulertuta, gure ingurunea hobeto ezagutu eta maitatzen ikastea ere bada tailer hauen helburua, eta horretan lagunduko digute 30. urteurrena betetzen ari den Oñatiko Natur Eskolako lantaldeak.

HILEAN TAILER BANA

Larunbat goizetan (hilean behin) izango dira tailerrak, eta herritar guztiei irekita egongo dira, adin muga barik. Natur eskolan izango dira saioak, eta bi zati izango dituzte; "lehenengoan, ongizatea, elikadura eta kontsumo ohiturekin lotura duten gaiak jorratuko ditugu, eta bigarren zatian naturako elementu ezberdinak aztertuko ditugu natur eskola inguruan", azaldu digute antolatzaileek; "tailer dinamikoak eta parte-hartzaileak izango dira, zentzumenetan eta emozioetan oinarrituta. Gure barnera begiratu eta inguruko naturak eskaintzen digunaz gozatzeko aukera izango dugu".

Ondoko taulan duzue aurreneko hiru tailerren aurrerapena.

UDAZKENEKO TAILERREN AURRERAPENA

► URRIAK 8, LARUNBATA

'ELIKADURA OSASUNTSUA'

- **Gaia:** Elikadura osasuntsurako planifikazioa: azukre, gatz eta gantzak ezagutu eta antzemanaz. Ura gure hidratazioa zaintzearen garrantzia
- **Natura lanketa:** Erreka

"Elikadura osasuntsuaren oinarriak. Zer eskaintzen digute jakiek? Nola osatu nire eguneroko platera osasuntsua garaiko eta tokiko elikagaiekin?. Jateaz arduratzen gara, baina gure ongizatean urak ze garrantzia dauka? Zer izan behar dut kontuan nire hidrataziorako ura aukeratzeko garaian?. Ura dastatuz (zentzumenak). Erreka, naturako elementu zaurgarria. Garbi mantendu ditzagun errekek..."

► AZAROAK 12, LARUNBATA

'GURE OHITURAK AZTERTUZ: ELIKADURA OSASUNTSU ETA JASANGARRIA'

- **Gaia:** Kontsumo kontzientea. Gure kontsumo ohiturak aztertuz. Sasoiko produktuak (onddoak, germinatuak...) gure elikaduran baliatuz.
- **Natura lanketa:** Onddoak, ezezagun handiak

"Jaten dugunaren inguruko begirada zabalduz. Eguneroko jakiak aukeratzekoan jabetzen ote gara garaikoa ote den? Nork eta nola ekoiztu duen? Zenbat KM egin ote dituen? Bidezkoa ote den? Plastikoz bilduta erosi ote duen?. Onurak nire osasunarentzat eta herri komunitate eta naturarentzat. Egunerokoan zer egin dezaket? Ze aukera ditut Oñatin?. Onddoak, naturaren udazkeneko altxorra. Nola baliatu nire elikaduran. Badakizu zuhaitzak onddoz osaturiko sare bitartez komunikatzeko gaitasuna dutela?..."

► ABENDUAK 17, LARUNBATA

'GABONAK'

- **Gaia:** Gabonetara begira, haur eta gazteak prestatzeko elikadura eta bizi ohiturekin loturiko aktibitateak.
- **Natura lanketa**

"Gazte eta haurrekin gabonen bueltako ideia osasuntsu eta dibertigarriak landuko ditugu".



Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI



**ANE GARTZIANDIA GABILONDO**

Gomiztegiko artzain eskolako formazio arduraduna

BEHIZAIN ESKOLA

Esnetarako behien azpisektorea biziberritzeko eskola sortu du HAZIK

Aretxabaletako Areantza Etxebarri baserrian emango da formazioa, baina Gomiztegiko artzain eskolak koordinatuko du, eta bertako eredu pedagogikoa aplikatuko da

Kalitatezko prestakuntzaren bidez, esne-behien azpisektorea biziberritzea da HAZIK (Eusko Jaurlaritza) abian jarri duen Behizain Eskolaren helburua. Bederatzi asteko kurtso pilotua egin zuten abendua eta otsaila bitartean, eta urrian hasiko da lehen ikasturtea, Gomiztegi kooperatibak koordinatuta. Bertako formazio arduradun Ane Gartziandiak (Donostia, 1973) eman digu Behizain Eskolaren inguruko berri.

Zergatik Behizain Eskola bat?

Esnetarako behien sektorea gainbeheran datorrelako, eta eragile ezberdinen artean zerbait egin beharra dagoela ikusi delako, sektorea dinamizatu eta suspertzeko helburuarekin.

Esne-behien sektoreak bizi

duen krisiaren atzean faktore asko daude, eta kasu honetan formazioaren aldeko apustua egitea erabaki da, profesionalki aritu nahi duten gazteak trebatu eta sektorean antzematen den eskulan kualifikatuaren beharrari erantzun nahian.

Gomiztegi kooperatibak koordinatuko du Behizain Eskola, baina formazioa Aretxabaletan emango da, ezta?

Bai, Urkulu urtegiaren ondoan dagoen Areantza Etxebarri baserrian. Sektorean esperientzia handia duten Julen eta Agustin Abasolo anaiek kudeatzen duten ustiategia da, 260 abelburu eta 80 hektarea lursailekin, eta hantxe jasoko dute formazio integrala ikasleek, teoria eta praktika uztartuz.

Catalana
OccidenteMikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- ✔ Heriotza
- ✔ Autoak
- ✔ Bizitza
- ✔ Istripuak
- ✔ Ontziak
- ✔ Osasuna
- ✔ Etxebizitza
- ✔ Aurrezkitza
- ✔ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84

mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com



PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

» DATUAK

• IRAUPENA

Urriaren 17an hasi eta otsailaren 28an amaituko da ikasturtea

• TEORIA ETA PRAKTIKA

Guztira 664 ordu izango dira; 214 teoria eta 450 praktika

• NORI ZUZENDUA

Esne-behien sektorean lana egin nahi duen edo lanean ari denari zuzenduta dago

• IZEN-EMATEA

<https://hazi.eus> webgunean eman behar da izena. Gomiztegiara ere jo daiteke informazio eske

Lau hilabeteko formazio aldia izango da. Zer irakatsiko duzue bertan?

Arlo teorikoan, ekoizpena, ku-deaketa, plangintza, eraldaketa eta merkaturatze-prozesuekin lotutako hainbat kontzeptu eta ezagutza landuko dira, baserrian bertan egokitu dugun ikasgelan.

Bestalde, eguneroko praktikak Areantza Etxebarri baserriko ukuiluan, gaztandegian eta jezte nahiz merkaturatze geletan egingo dituzte, eta horrez gain, beste baserri batzuetan ere egin beharko dituzte praktikak. Gainera, bisitak ere egingo ditugu ustiategi ezberdinetara, lan egiteko modu eta ekoizpen sistema ezberdinak ikusi eta ezagutzeko aukera izan dezaten ikasleek.

Gomiztegiko artzain eskolako eredu pedagogikoa aplikatuko da Behizain Eskolan, eta hori berori bada berme bat.

Beno, artzain eskolak 25 urteko ibilbidea egin du, eta mantendu bada, izango da zerbait ondo egin dela. Orain, eredu hori behien behar espezifikotara egokitu behar dugu, kalitatea eta berrikuntza aplikatuz, ingurumenarekin arduratsuak diren ekimen berriak sustatuz, eta esnekien sektorean sortuko diren joera berriei adi egonda. Eskola honek



Goian, Arantza Tapia sailburua eta Areantza Etxebarri baserriko ustiategiko arduraduna, Behizain Eskolaren aurkezpenean. Ezkerrean, iazko kurtso pilotan parte hartu zuten ikasteleetako batzuk

ez du sektoreak bizi duen krisia konponduko, baina bultzadaxo bat eman nahi diogu, sektoreko gainerako eragileekin batera.

Zein dira esnetarako behien sektorearen erronka nagusiak?

Bizirik mantentzea eta, ahal dela, erreleboa ahalbidetzea, horixe da erronka nagusia, eta horretarako hari-mutur asko lotu behar dira, ez soilik sistema produktiboa; gizarte mailan ere lanketa handi bat egin behar da behar bezala baloratzeko behi sektoreak ekoizten dituen elikagaiak eta paisaia zaintzen egiten duen lana. Errekonozimendu falta bat dago gizartearen aldetik.

Esnearen prezioa behea jota, ez dirudi gazteak erakartzeko unerik egokiena denik.

Ez, baina, hala ere, badago sektore honetan lan egiteko prest dagoen gazte jendea eta, gogoia baldin badago, gure egitekoa da bidea erraztea, eta bizimodua era duin batean atera ahal iza-

teko baldintzak jartzea.

Hemen, urte askotan, esnea saltzera zuzendutako ekoizpen eredu jakin bat sustatu da, baina azkenaldian beste aukera edo eredu batzuk sortzen ari dira, bai produkzioari dagokionean —esnea saltzeaz gain ekoizpena dibertsifikatzea erabaki dutenak (gazta mota ezberdinak, jogurtak, zukuak, izozkiak...), edo zuzeneko salmentaren aldeko apustua egiten ari direnak—, eta baita antolakuntza mailan ere —kooperatiba eran antolatutako gazte taldeak...—. Sistema ezberdinak daude, eta denek izan dezakete lekua merkatuan.

Nori dago zuzenduta Behizain Eskola?

Behien sektoretik bizi nahi duen edonori. Baserri edo ustiategi jakin baten erreleboa hartu nahi dutenei, edo langile gisa sektorean aritu nahi duten guztiei, halakoen beharra ere badago eta esne-behien sektorean. ■



ANE GARTZIANDIA

Behizain Eskola

Gizarte mailan ere lanketa handia egin behar dugu, behi sektoreak ekoizten dituen elikagaiak eta paisaia zaintzen egiten duten lana behar bezala baloratu dezagun

Matrikula aldia zabalik

UDAL EUSKALTEGIAN

Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegian prest daude ikasturte berriari ekiteko. Aurten ere eskaintza zabala prestatu dute: Euskalduntze eta Alfabetatze mailak, titulu ofizialak (HABEren A1, A2, B1, B2, C1 eta C2. mailak) lortzeko ikastaroak, aurrez aurrekoak, etorkinei zuzendutako ikastaroak, Oñatiko euskara lantzekoak... Maila eta behar guztietara egokitutako eskaintza zabala. Izena ematen duten ikasleen artean matrikula baten zozketa egingo da. Joan den ikasturteko zenbait ikasleren iritziak bildu ditugu.



**MARTHA LETICIA
FUENTES GARCIA**

"Harreman sarea zabaltzeko ere oso lagungarria da euskaltegia"

Mexikarra sortzez, hiru urte daramatza Oñatin bizitzen. Bigarren kurtsoa osatu du euskaltegian eta, dagoeneko, oso txukun egiten du euskaraz. "Bizi zaren lekuko hizkuntza ikastea oso inportantea da, bertako kultura hobeto ulertzeko, eta profesionalki ere asko baloratzen da euskara jakitea. Horregatik, gustatuko litzaidake etorkizunean C1 titulua lortzea, baina astiro-astiro. Oso gustura etortzen naiz euskaltegira. Irakasleek asko animatzen zaituzte, eta ari naiz, poliki-poliki, beldurra galtzen. Euskara ikasteaz gain, jende berria ezagutu eta harreman-sarea zabaltzeko ere oso lagungarria izan da niretzat euskaltegia".



CLARA GOMEZ LIZARRALDE

"Lehen ez nuen ezertxo ere egiten euskaraz, eta orain hasi naiz, poliki-poliki"

Bigarren kurtsoa egin du euskaltegian eta jarraitzeko gogoz dago. "Euskaraz berba egiteko gai izatea da nire helburua. Ulertu egiten dut, baina oraintsu arte ez nuen hitzik esaten euskaraz, eta orain hasi naiz beldurra galtzen. Nahastu egiten ditut Oñatikoa eta batua, baina ari naiz, poliki-poliki. Irakurtzen ere oso ondo moldatzen naiz, eta idazten ere hainbestean. Aurten, tamalez, irakaslea gaixotu egin zen eta, ordezkorik aurkitu ezinik, ia hiru hilabete galdu ditugu, eta taldekide batzuek utzi egin dute. Ea irailerako jendea animatzen den taldea osatu ahal izateko".



**IULEN IRIONDO
MARTINEZ DE ZUAZO**

"C2 titulua lortzeko asmoz eman nuen izena euskaltegian"

Titulua (C2 maila) lortzeko asmoz eman zuen izena euskaltegian Julenek. "Bai, horixe izan da arrazo nagusia; ez momentuan beharra daukadalako, baina inoiz ez da jakiten, eta gerorako ere hor egongo da. Gainera, gustatzen zaidan arlo bat da, orduan ez da izan ahalegin berezi-berezia niretako. Egunerokoa hizkuntzarekin egiten dut lan, egunero nabil idazten, entzuten, irakurtzen... baina, hala ere, beti egoten da zeozer ikasteko eta hobetzeko. Egia esanda, C2 titulua eskuratzeko lan dezente egin behar da, bai klasean eta baita etxean ere, baina gustura nago, bai taldean izan dugun giroarekin eta baita irakaslearekin ere.

EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAIO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop



ALAIN DJOMGONE TIENTCHEV

"Etorkizuna hemen ikusten dut, eta euskara ikasi gura dut"

Kamerundarra sortzez, urte eta erdi darama Euskal Herrian, gehienbat Oñatin, eta bertan gustura dagoenez, euskara ikastea erabaki du. "Ondo eta lasai bizi naiz hemen. Soldadura eta galdaragintza ikasketak egiten ari naiz, eta ziur jakiterik ez badago ere, nire etorkizuna hemen ikusten dut eta, beraz, euskara ikasi gura dut hobeto integratu ahal izateko. Ez da erraza, baina gaztelania ikasi dut eta, beraz, zergatik ez euskara? Ikasturte bat egin dut euskaltegian, eta ari naiz ikasten. Irakasleak asko laguntzen dit, eta denbora baldin badaukat behintzat, ikasten jarraitzeko asmoa dut".



AMELIA ALDAS CASTILLO

"Inportantea da bizi zaren tokiko hizkuntza ikastea"

Bigarren ikasturtea osatu du udal Euskaltegian, eta, poliki-poliki, aurrera egiten ari dela ikusten du. "Iaz galduta ibili nintzen, txinera iruditzen zitzaidan, oso zaila; baina, aurren, gero eta gauza gehiago ulertzen dut, eta aurrerapausoa eman dut, batez ere idatzizkoan, ahazkoan zailagoa gertatzen zait". Ikasten jarraitzeko asmoa du. "Bai, adineko pertsonak zaintzen egiten dut lan, eta, gainera, nire etorkizuna Oñatin ikusten dut; egunen batean bilobak izango ditudala pentsatzen dut, eta, beraz, ahalik eta gehien ikasi nahi dut. Inportantea da bizi zaren tokiko hizkuntza ikastea".



AITZOL GANDIAGA CONGET

"Euskarari zor diogu ahalik eta txukunen egitea"

Beti egin izan du euskaraz Aitzolek, bai etxean, bai lagun artean ere, baina idazteko garaian galtzen ari zela ikusita, euskaltegian izena ematea erabaki zuen iaz. "Uste izaten dugu beti euskaraz berba egin dugulako ondo egiten dugula, baina denok egiten ditugu akatsak, eta uste dut euskarari zor diogula ahalik eta txukunen egitea. Gainera, profesionalki ere ez dakizu non amaituko duzun eta zer beharko duzun, eta pentsatu nuen C1 titulua eskuratzea ere ez zela soberan egongo. Egiari zor, lan jarduna amaitu ostean euskaltegira etortzea gogorra egiten da, baina esperientzia ona izan da eta oso gustura nago ikasitakoarekin".

Niretzat **Hiretzat** **Harentzat**

Para todxs
EUSKARA
GUZTIONTZAT

Guretzat **Zuentzat** **Halentzat** **Zuretzat**

UDAL EUSKALTEGIAK GUZTIONTZAT PUBLIKOAK
HADE
2022/2023
MATRIKULA EPEA ZABALIK
Plazo de matriculación abierta

MATRIKULA ZABALIK

irailaren 1etik 23ra

Oñatiko Udal Euskaltegian (Bidebarrieta, 18)
Bulego ordutegia: 9:00 - 13:00 / 16:00 - 18:30
943 782 496 / euskaltegia@onati.eus

Ohiko beka sistemaz gain, iraupen luzeko langabetuentzat dohainik (informatu euskaltegian).
Matrikulatzen diren ikasleen artean zozketa egingo da eta saridunari matrikularen kostua itzuliko zaio.

AZTERKETA OFIZIALAK
MAIATZEAN ETA IRAILEAN

MATRICULA ABIERTA

Del 1 al 23 de septiembre

Oñatiko Udal Euskaltegian (Bidebarrieta, 18)
Horario de oficina: 9:00 - 13:00 / 16:00 - 18:30
943 782 496 / euskaltegia@onati.eus

Además del sistema habitual de becas, parados de larga duración, gratis. Infórmate en el euskaltegi.

EXAMENES OFICIALES
EN MAYO Y SEPTIEMBRE



Futbol zelai berria egiteko kokaleku bat proposatzeko azterlana enkargatu du Udalak

Etorkizuneko futbol azpiegitura kokatzeko dauden aukera ezberdinen inguruko azterlana enkargatu dio Udalak Girder S.L. enpresari 7.950 eurotan (+BEZ). Herriko kirol eragileen instalazio eta ekipamendu beharrak definitu, eta hori egiteko lursail egokia identifikatzea da azterlanaren helburua.

Beraz, urtea amaitu aurretik eskuartean izango du udalak aukera ezberdinen eta egin beharko litzatekeen inbertsioen inguruko txostena.

Aste honetan hasiko dira belar berria jartzen Azkoagainen

Hiruzpalau aste beharko dituzte lanak amaitzeko

Uste eta nahi baino gehiago luzatzen ari dira Azkoagainen futbol zelaiko belar artifiziala berritzeko lanak. Obra zibila egin behar zuen enpresak izandako arazoak eragin du, batez ere, atzerapena. Aldizkaria ixteko orduan goiko argazkiak erakusten duen itxura zeukan Azkoagainen, belar azpiko asfalto geruza bistan dela, oraindik.

Belar geruza zaharra kendu ostean, zorua perfilatu, hanhemenka zeuden zuloak konpondu eta drainatze nahiz ureztatze sistemak hobetzeko lanak egin dituzte orain arte, besteak beste.

Aste honetan ziren belar artifizial berria jartzen hastekoak, eta obrako arduradunek azaldu digutenez, hiru asteren buruan lanak amaitzeko moduan egongo dira, eguraldiak laguntzen badu, euria eginez gero ezin baita belarra jarri. Zelaia inguratzen duen sarea

berritzeko lanak ere aste honetan egingo dira, baina Berezaora ematen duen aldean sare berria ipini ahal izateko masta berriak jarri behar dira aurrena, eta hiru bat aste barru iritsiko omen dira hauek.

ENDREDUA ALOÑA MENDIRENTZAT

Aloña Mendik eskatua du federazioan lehen taldearen eta jubenil nahiz kadete mailako taldeen aurreneko partiduak etetik kanpora jokatzeari, baina nahigabetuta daude obrak izan duen atzerapenarekin, abuztuaren 28rako lanak amaituta egongo zirela agindu baitzieten. Talde nagusia eta jubenil mailakoa Antzuolan ari dira entrenamendu saioak egiten, eta klubaren nahia da irailaren 24-25eko asteburuan jokatu ahal izatea aurreneko partiduak Azkoagainen.

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 beheka • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

Berezaon futbol zelai berria eta aire zabaleko igerilekuak eraikitzea proposatu du EAJk



Berezaoko Korriuena gunean kokatuko litzateke kirol gune berria. EAJk aurkeztutako foto-muntaia ezkerreko irudian

Bi futbol zelai eta aire zabaleko igerilekuak izango lituzkeen kirol-hiri berria eraikitzea proposatu du EAJren udal taldeak. Berezaoko *Korriuena* izeneko eremuan kokatuko litzateke azpiegitura berria, Azkoagain eta Berezaio artean dagoen eremuan, jeltzaleek prentsa ohar bidez azaldu duenez.

Jeltzaleek gogorarazi dute Aloña Mendi klubak hamarkada bat baino gehiago daramala Azkoagaingo zelaiaren "egoera deitoragarria" konpontzeko eskatzen, eta EAJk ere behin baino gehiagotan eskatu duela Azkogaineko egoera bere osotasunean aztertzea. EH Bilduren gobernu taldea, aldiz, "adabakiak jartzen ari da, bata bestearen ondoren", jeltzaleen ustez.

BI FUTBOL ZELAI ETA AIRE ZABALEKO IGERILEKUAK

EAJren proposamenaren arabera, kirol gune berriak bi futbol zelai izango lituzke, Aloña Mendiko taldeek jokatu eta entrenatu ahal izateko, klubaren beharren tamainako beste ekipamendu batzuekin batera (aldagelak, bainugelak, gimnasioa...).


Gainera, adin guztietako erabiltzaileentzako aire zabaleko igerilekuak eraikitzea ere aurreikusten dute jeltzaleek. Igerileku jasangarriak eta ekologikoak izango lirateke, oharrean azaltzen dutenez: uraren erabilera egokia egingo litzateke eta prozesu naturalak erabiliko lirateke ura garbi mantentzeko, produktu kimikoak saihestuz. Modu horretan, Usakoren izaera naturala berreskuratu eta zaintzeko aukera egongo litzateke.

EAJren "makro-azpiegitura" proposamena harriduraz eta kezka jaso du udal gobernuak

Udal gobernu taldeak harriduraz jaso du EAJk prentsa bidez zabaldu duen Berezaoko makro-azpiegituraren proposamena, prentsa ohar bidez azaldu duenez. Are gehiago, irudi soil baten oinarrituriko tamaina horretako proposamena egitea, egungo testuinguruan, aparteko informazio barik (aurrekontua, egingarritasuna...), zabalzea, "arduragabea" dela uste du. "Futbol zelai berriaren kokapenaren inguruko azterketa bat martxan da. EAJren ekarpenez, aurrekontuetan sartu zuen udal gobernuak. Eta oraindik emaitzarik ez dagoen arren, EAJk futbol zelairako lekua irmoki aukeratu omen du dagoeneko. Ez dugu azterketa eskatu izanaren zergatia ulertzen", gaineratu du gobernu taldeak.

Udal gobernuak gogora ekarri du kiroldegia eraberritzeko maileguaren ordainketarekin segitzen duela Udalak, eta egoera horretan kezkatuta agertu da EAJren jokaerarekin. "EH Bildu udal gobernuan lehenengoz sartu zenean, 5,7 milioi euroko zorra zuen Udalak, eta zorra 0-ra eraman arte kiroldegia berritzeari ez ekitea erabaki genuen. Kezkagarria da Zubikoa moduko exijentzia handiko azpiegitura bat inauguratu berritan, Berezaokoa moduko makro-azpiegitura bat proposatzea".


Udal gobernuaren ustez EAJren proposamena ez da errealista, eta kezka agertu du horregatik. "Errealista ez den zerbait, irudi soil bat erabiliz, errealista moduan aurkeztu die EAJk herritarrei".



COINBROKER
OÑATI
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA
943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP
OINATI@COINBROKER.EUS



Pandemia garaiko baimen bereziak indargabetuta, taberna aurrealdeko terrazan ordenantza doitu du Udalak



Ordenantza berrira egokitu beharko dute terrazak

2020ko maiatzaren 15ean, COVID-19ak eragindako pandemia giro betean, taberna eta jatetxe aurrealdeko terrazak handitzeko aukera ematen zuen dekretua onartu zuen udalak, osasun kontrola eta urruntze sozialari zegozkion neurriak bete eta ostalaritza sektoreari laguntzeko asmoz.

Orduko larrialdi egoera gaindituta, 2020ko dekretua indargabetzea erabaki zuen udalbatzak ekainaren 30eko osoko bilkuran, eta, aldi berean, 'Taberna aurrealdeko mahai eta aulkiak jartzeko' udal ordenantzaren jasotzen dituen zenbait puntu hobeto zehaztu eta doitzeko irizpide gehigarriak onartu ziren. Ondoko taulan ikus daitezke irizpide nagusiak.

» TERRAZAK JARTZEKO IRIZPIDEAK

- Oinezkoentzako pasabidearen gutxieneko zabalera, oztoporik gabe, honako hau izango da:
 - Atzeko Kale: 1,50 m. (fatxada ondoan)
 - Kale Zaharra: 2,50 m. (erdigunean)
 - Kale Barria: 2,50 m. (erdigunean)
 - Gainerako eremuak: 2,50 m.
- Atarrietako eta saltokietako sarrera-irteerak libre utzi beharko dira.
- Tabernaren fatxadatik aurrealdera, terraza ezingo da 15 m. luze baino gehiagokoa izan.
- Tabernaren fatxadaren alboetara, terraza ezingo da 10 m. baino gehiagora jarri.
- Zamaletarako ordutegian, 4 m.-ko tartea utzi beharko da libre ibilgailuentzat.
- Terrazak dauden plazetan, azalera guztiaren 2/3 espazio publikorako libre utzi beharko da.
- Tabernarien ardura izango da mahaiak eta aulkiak baimendutako kokalekuan mantentzea.
- Kaleko hiri-altzarien inguruan (bankuak, zakarrontziak...) 1,50 m.-ko tartea utzi beharko da libre.
- Ixteko ordua iristean, terrazan jarritako material guztia jaso behar da (mahaiak, aulkiak...), debekatua baitago horiek kalean uztea.
- Terraza, ezingo da goizeko 8:00ak baino lehenago jarri

Indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzen dituzten profesionalentzako ikastaroa

EMAKUNDEK antolatuta, indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzen dituzten profesionalen zuzendutako prestakuntza ikastaroa egingo da irailaren 12tik abenduaren 4ra bitartean. Guztira 85 ordu izango dira eta online emango da.

Ikastaroaren helburua da arlo horretan diharduten profesionalen ikuspegia bateratzea, adostasun ildoak sendotzea eta printzipio orokorretako bat indartzea: emakumeen ahalduntzea.

Ikastaroak bi modulu izango ditu: sarrerakoa eta oinarrikoa. Sarrerakoan, esku hartzeko irizpideak homogeneizatu nahi dira; oinarrikoan, berriz, gutxieneko ezagutza batzuk eskainiko dira (arloko arau-esparrua, datu pertsonalen tratamendua, emakumeen ahalduntze pertsonala sustatzea eta beste...).

Ikastaroa osatu eta gutxieneko helburuak gainditzen dituztenek EMAKUNDEren ziurtagiri bat jasoko dute. Ikastaroa dohainik da. Informazio gehiago udaleko Berdintasuna departamentuan (berdintasuna@onati.eus). Izena ere bertan eman daiteke.

TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

BEHAR DUZUN

TARIFA MEREZI DUZUN
PREZIOAN

FIBRA 300Mb

+ **MUGIKORRA 25GB**

+ **DEI MUGAGABEEKIN**

39,90 €/HILEAN
BEZ barne
Linearen kuota
barne.

BETIRAKO

ETA GEHITU
BESTE LERRO BAT 25GB
1€/HILEAN
LEHENENGO 6 HILABETEETAN



ETORRI ETA EZAGUTU:

LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TELF: 943 090 600



BEZ barne Eskaintza 2022/06/30ra arte salmentetarako balio du Fibra 300Mb-ekin Tarifa PLUS 25GB-ekin kontratatzean 39,90 €/hileko betiko linearen kuota barne. 181,5€ko deskontua 3 hilabeteko egonaldiaren murrerako instalazioan. Tarifa PLUS 25GB PROMO 1 €/hilean 6 hilabetez, gero 8 €/hilean; gehienez lerro bat kontratu bakoitzeko. 2020ko bigarren sei hilabeteetan Espainiako zuntz sarerik azkarrena, nPerfek egindako ikerketa independentearen arabera. Kontsultatu gainerako baldintzak www.masmovil.es webgunean.

MÁSMÓVIL

AHORRA, SIN MÁS



Elorregiko autobus geltokiak izango duen itxura ikus daiteke goiko foto-muntaian

Elorregiko autobus geltokia eta komuna egokitzeko lanen zuzendaritza kontratatu du Udalak

San Prudentzio-Elorregiko geltokia hobetzeko hainbat eskaera jaso dira azken urteotan, baina administrazio ezberdinen (Oñati, Arrasate eta Bergarako udalak, eta Foru Aldundia) arteko adostasuna eskatzen duen gaia izanik, nahi baino gehiago luzatu da denboran.

Bide horretan, Oñatiko udalak autobus geltokiaren inguruko azpiegiturak (geltokia, bizikleta aparkalekua eta komuna) bere osotasunean aztertuko zituen oinarritzko proiektua enkargatu zion *Taper Arkitektura* enpresari 2020an, eta ondoren exekuzio proiektu batean zehaztu zen 2021ean.

Orain, Oñati, Arrasate eta Bergarako udalak proiektua aurrera eramateko lankidetzaz hitzarmena adostu dutenez, eta Foru Aldundiak ere finantzaketan parte hartzeko konpromisoa azaldu duenez, obraren zuzendaritza zerbitzua kontratatzea erabaki du Udalak, *Taper Arkitektura* enpresarekin, 9.750€-tan (+BEZ). Orain, exekuzio proiektuaren aurrekontua egungo egoera ekonomikora egokitu beharko du enpresak. Gero obraren esleipena egingo da, eta 12 asteko epea aurreikusten da lanak burutzeko.



Erabilgarri dago jada kiroldegiko parkinean egokitu den bizikletentzako aparkalekua

» Kiroldegiko txartelarekin irekitzen da atea. Bazkide ez direnek ere erabil dezakete aparkalekua kiroldegian txartela (5,15€) eskatuz

Mugikortasun jasagarria sustatzeko ahaleginean urrats berri bat eman du Udalak, kiroldegiko lurpeko parkinean bizikletentzako aparkaleku seguru, eroso eta erabilerraza egokituta.

Eguneko 24 orduetan dago erabilgarri, eta kiroldegiko bazkide txartelarekin irekitzen da bertako atea. Hamalau urtetik gorako bazkide guztiei automatikoki aktibatu zaie txartela, aparkaleku berria dohainik erabili ahal izateko. Kiroldegiko bazkide ez direnek txartela (5,15€ ordainduta) eskuratu behar dute kiroldegian, aparkalekua erabili nahi badute.

Kalegoienako parkinean ere halako beste gune bat egokitzeko asmoa du Udalak.

JUANJE MARGOAK
627 818 247

ARKITEKTURA

Baserrien eraberritzeak • Isolatzailea fatxadak • Igogailuak

tel: 677 31 20 57 * amaiigartua@gmail.com



Udalaren Gizarte Zerbitzuetako bulegoak Ramon Irizar parkera aldatuko dira behin-behinean

Udalak Bidebarrieta kaleko 12an dituen Gizarte Zerbitzuen bulegoetan eraberritze lanak egin behar ditu egungo espazioa berrantolatu eta behar berrietara egokitzeko, eta, beraz, obra horiek egin ahal izateko, gizarte langileen bulegoak lekuz aldatu egingo dira, behin-behinean, lanak amaitu bitartean.

Ondoko argazkian ikusten den galeria-lokalera aldatuko dira Udalaren Gizarte Zerbitzuak. Ramon Irizar plazako lokal hauek prestatzen ari dira eta, atzerapenik ez bada, irailaren amaieran hasiko dira zerbitzua bertan ematen. Aurreikusitako epeak betetzen badira, 2023ko martxora arte, gutxi gora behera, egongo dira bertan Udaleko Gizarte Zerbitzuak.

Urgain-Errekalde ikastetxeko aurrealdea oinezko gune bihurtu du Udalak

Herriko ikastetxe inguruetan haurren segurtasuna bermatu eta mugikortasun jasangarria sustatzeko asmoz, **Bagabiltz-Eskolako Bidea** proiektua jarri zuen abian udaleko Euskara-Hezkuntza sailak 2014-2015 ikasturtean. Orduz geroztik hainbat ekimen eta neurri hartu ditu Udalak helburu horiek lortzeko bidean, eta ildo horretan ulertu behar dira Urgain-Errekalde ikastetxearen aurrealdean egindako eraldaketa ere.

Ondoko argazkian ikusten den moduan, ikastetxeko sarrera-irteera gunean zegoen aparkalekua oinezko gune bihurtu du Udalak. Modu horretan, bide-segurtasuna areagotu, irisgarritasuna hobetu eta eskola ingurune lasaiagoa, osasuntsuagoa (emisio kutsatzaile gutxiagokoa) eta inklusiboagoa (oztoporik gabea) lortu nahi izan du, desgaitasuna duten pertsonentzat eta herritar guztientzat, oro har.



BIZIKLETA ETA PATINETE APARKALEKUAK

Oinezko bihurtutako gunean bizikletentzako estalitako aparkalekua ezarri du Udalak, eta patineteentzako azpiegitura ere osatu du. Orain arte 18 bizikleta uzteko azpiegitura zegoen bertan (estali gabea) eta Udalak ipini duen 15 metroko aparkaleku berria 34 bizikleta uzteko lekua dago, guztiak

estalpean. Patineteak uzteko azpiegiturari dagokionez, halako 15entzako tokia zegoen oraintsu arte, eta 45 patinete aparkatzeko aukera dago orain.

Modu horretan, mugikortasun autonomoa eta aktiboa sustatu nahi da (oinez, patinetez edo bizikletaz), ikastetxeari ez ezik, auzoari ere bizikletak aparkatzeko eskaintza handiagoa emanez.

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

Herri onurako mendietako larreratzeak eta artzain txabolen erabilera arautzeko ordenantza onartu du Udalak



Udalaren Herri Onurako Mendietako (HOM) larreratzeak eta artzain txabolen erabilera arautzeko ordenantza onartu zuen udalbatzak ekainaren 30eko osoko bilkuran, hasiera bateko izaeraz. Onartutako testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, 30 egun balioduneko epean egongo da jende agirian, eta erreklamaziorik ez bada, behin betiko onartutzat joko da ordenantza.

Onartu berri den ordenantzak Foru Aldundiko larreetako zuzendaritzaren oniritzia jaso du, eta ALOABEL (Aloña Mendiko Abeltzale Elkarte) elkarteak egindako ekarpenak ere jaso ditu, eta aurretik (2001) indarrean zegoen araudia osatzera dator, batez ere artzain txabolen lagapenari dagokionez, eta ahuntzak larreratzeko aukera ere jasotzen du.

ARTZAIN TXABOLAK

Udalak HOM-etan dituen artzain txabolen erabilera eta lagapenari dagokion atala da ordenantzak dakarren berritasun nagusia. Ildo horretan, kontzesio eskubidea eduki ahal izateko, gutxienez 60 ardiko artalderen jabe izatea eskatzen da.

Artzainei txabola inguruan lursail eremu bat utzi ahal zaie, eskorta, baratza, ustiaketarako zuhaitzia edo oilategi edo antzekoak jarri ahal izateko.

Kontzesioak 5 urte iraungo du, ge-

hienez, eta beste bost urtez luzatzeko aukera egongo da.

Artzainak txabolen mantenu arruntaren ardura izango du: erreteila, fatxada pintatzea, instalazioen mantentzea... Mantenu arruntetik kanpo ulertuko dira eraikinaren egonkortasunerako ezinbestekoak diren lanak, hala nola, zimenduak, karga-hormak eta estruktura horizontal edo bertikalak gogortzea. Halaber, mantenu arruntetatik kanpo ulertuko dira eraikinaren bizigarritasuna hobetzen duten hobekuntza lanak: fatxadak isolatzea, egoera txarrean dauden leihoak aldatzea eta antzekoak.

AHUNTZ AZIENDAK

Azienda motei dagokienez ere badu berritasunik onartu berri den ordenantzak. Izan ere, ardi-ahari, behor-zaldi eta zezen-behiez gain, ahuntz-akerrak larreratzeko baimena ere jasotzen baita aurrenekoz, kudeaketa-plan baten baitan beti ere. Erleak ere onartuko dira eta, gainera, artzainei beren txaboletan bina txerrama eta bi dozena oilar-oilo onartuko zaizkide, beraien beharretarako.

HOM mendietako larreak ustiatzeko baimenduek ALOABEL elkarteko kide izan beharko dutela ere jasotzen du ordenantzak.

Larraña eta Lezesarri auzoek jaso dituzte Auzotasuneko diru-atal gehigarriak

2013an jarri zuen martxan Udalak herriko landa-auzoei zuzendutako **Auzotasuna** programa. Horren arabera, urtero 100.000 euro pasatxo banatzen ditu Udalak herriko 16 auzoen artean, bertako bizilagunen bizi-kalitatea hobetu, auzotarren arteko harremanak sustatu, auzoaren izaera eta nortasuna sendotu, eta auzo-bizitza indartzen laguntzen duten jarduerak bultzatzeko asmoz.

Ikusirik, baina, auzo batzuek dituzten egitasmo edo proiektuek gastu edo inbertsio handiagoa eskatzen dutela, Udalak 'Auzotasuna' izeneko diru-atal gehigarria sortzea erabaki zuen iaz.

Dirulaguntza gehigarri honen xedea da auzoek gaidiko herri onura bat duten egitasmoetan, auzoek egitasmo horretarako bideratutako finantziarioari Udalak diru ekarpen gehigarri batekin laguntzea.

Otsailaren 15ean onartu ziren auzo-alkateen foroan Auzotasuna izeneko diru-atal gehigarrien oinarri arautzaileak, eta aurreneko deialdira aurkeztutako eskaerak aztertu ostean, honako laguntzak ematea onartu du Udalak: **Larraña** auzoari 5.228€, San Lorentzo ermitako irudi erlijiosoen eraberritze lanetarako, eta **Lezesarri** auzoari 2.541€, auzoko bide historikoen azterlana egiteko.



Larraña auzoekoek San Lorentzo ermitako irudiak berrituko dituzte



Aisialdiko begirale titulua **Oñatin** eta **euskaraz** eskuratzeko aukera eskainiko du aurten ere Udalak

Irailaren 20an, asteartea, informazioa jasotzeko bilera irekia egingo da Euskaldun Berria gelan, 18:00etan

• TITULAZIOA

Eusko Jaurlaritzak homologatutako **Haur eta Gazten Aisialdirako Begirale** titulua Oñatin bertan eta euskaraz eskuratzeko aukera eskainiko du aurten ere Udalako Euskara-Hezkuntza sailak

• NORK EMANA

Hezten aisialdi euskaltzalea Aisialdi Eskolak emango du

• IRAUPENA

150 ordu teoriko eta 160 praktika ordu. Urrian hasi eta maiatza bitartean, larunbatetan 9:00-15:00.

• DATAK

Formazio saioak honako data hauetan izango dira: urriak 22, azaroak 12, 19 eta 26, abenduak 17, 26, 27, 29 eta 30, urtarrilak 2, 4, 14 eta 28, otsailak 4, 11 eta 25, martxoak 11 eta 25, apirilak 22, eta maiatzak 13, 20, 27 eta 28. Titulua eskuratzeko gehienez 24 ordu galdu ahal izango dira.

• BALDINTZAK

Atal teorikoa burutzen denerako 18 urte beteta edukitzea eta DBHko tituluaren jabe izatea.

• PREZIOA

500€. Udalak diruz lagundutako ikastaroa da, eta matrikularen %75eko laguntza emango die ikasle eta langabetuei. Gainontzekoei, matrikularen %50. Baldintzak: Oñatin erroldatuta egotea. Eskolen aprobetxamendu ona edo titulua eskuratzeko.

• IZEN-EMATEA

Urriaren 7ra arte, www.oñati.eus webgunean. Informazioa, Udaleko Hezkuntza sailean (Iñaki Akizu / 688744932 / iakizu@onati.eus / Gaztelekuko informazio puntuan).

• OHARRA

Oñatiko Udaleku Irekietan begirale lanetan aritzeko deialdian 4,5 puntuko balioa du ikastaro honek.

Bandera ofizialetik San Andres gurutzea kentzea onartu du Udalak



Oñatiko bandera ofizialetik San Andresen gurutzea ezabatzea onartu zuen udalbatzak uztailako osoko bilkuran, EH Bilduren aldeko eta EAJ-ren kontrako botoz.

Herriko ikurrak (armarria eta bandera) eguneratzeko asmoz, 2020an hasitako prozesuaren baitan, gurutzea kentzea eskatuz herritar batek aurkeztutako alegazioa onartzea erabaki du gobernu taldeak. EH Bilduk argudiatu du ez dagoela argi gurutze horrek Oñatirekin duen lotura eta, gainera, sinbolo militar eta erlijiosoa dela, kristaua, eta gaur egungo gizartean herritar guztiak sentitu behar direla identifikatuta euren herriaren ikurrarekin.

EAJren udal taldea San Andres gurutzea kentzearen aurka azaldu zen, Euskal Herriko historiari muzin egitea dela adieraziz. "Euskaldunon ikurrinak San Andres gurutze berdea dauka, Gernikako arbola irudikatzen duena. Bestalde, faxisten aurka borrokatu zen San Andres batailoiak, Euskal Langile Abertzaleen batailoiak, ikurrina eta San Andres gurutzea hartu zituen ikurtzat".

 **ZURICH**
M^a del Mar Urrutia Negueruela
Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER
ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO
OLAKUA 12 B 4 ez. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77

ZIKLOTURISMOA ERREPIDEKO BIZIKLETA LAGUN, PIRINIOAK ALDERIK ALDE ZEHARKATU DUTE ABUZTUAN

TRANSPIRENAI



> **Bizikleta, lagunak, abentura eta emozioak.** Horixe da, hain zuzen ere, udako bidaia honen oinarria. Erronkan parte hartu duen kide baten kronika pertsonala duzue honako hau.

IRUN-etik TOSSA DE MAR-era

Aratz Losada Pérez

Abuztuak 6; goizeko bostak. Etxeko leihoak iriki ahalaz bat antzematen da San Lorentzoko jaietako festa giroa. Gutxi batzuen eguna amaitzen ari den honetan, hasiko da besteona. Badator Transpirenaikoa. Gorputzari behar besteko erregaia sartu eta seirak jo orduko irten naiz *patotara*. Han egin baitugu hitzordua lagunok.

6:15, dena bere lekuan kokatu, argiak piztu eta Zumarraga aldera abiatu gara. Bertan daukagu eguneko lehen geldialdia. Irunera eramango gaituen tren. Donostian batu zaigu espedizioko azken laguna eta guztiok elkarrekin genduela ekin diogu bideari.

LEHEN IZERDIAK

Irunen hasi eta Aretten amaituko da lehen etapa. Giro eguzkitsua lagun, muga zeharkatu eta segituan sartu gara Ipar Euskal Herriko errepideetan. Espelette igaro,

eta erreka bazter batean gindoazela izan dugu bidaiako lehen ustekabekoa. Endikak atzeko gurgila zulatu du. Eskerrak taldean mekanikari trebeak ditugun. Arazoa azkar konpondu eta Mendibe igarota iritsi zaigu eguneko portu gogorrena: Ahuski. *"Bufff ze maldak! hau beroa! mutilak, hasi dok Transpir!"* dio gutariko batek.

Eta igoera horrek, neurri handi batean, gure lekuan jarri gintuen. Baita bidaiako erritmoa markatu ere. Atharratzen bazkaldu, eta Aretteko



ETAPAZ ETAPAKO
BIDEO LABURPENAK

@a3losada

ALBOK-EKO ZORTZI LAGUNEK

IKOIA



Abenturan parte hartu duten 8 oñatiarrak, Aubisque gainean.

nekazalturismoan amaitu da lehen eguna.

Bigarren etapa. Marie Blanque, Aubisque eta Soulour mendateak agertzen zaizkigu gaurko menuan. Atzokoa kontutan izanik, erritmo kontrolatu batean igo ditugu guztiak. Eta Luz-era iritsi aurretik, Argeles Gazosteko jaiak bete bete batean ikusi ditugu. Kale dantzak, musika, jan-edana...ederra izan da!

Hirugarren etapa. Desnibel handiena zeukan eguna. Tourmalet, Hourquette d'Ancizan eta Peyresourde

igo behar genituen. Baina taldean eta lagun artean, gauzak askoz errazago egiten dira. Eta motelenaren erritmoa hartuz, arazorik gabe osatu dugu gaurko etapa.

Laugarren etapa. Frantzia eta Katalunia artean mugitu gara eta, besteak beste, Portillon eta Bonaiguako mendateak igo ditugu. Hori bai, jaitsiera ere aipagarria izan da. Azken tontor honetatik Sort-erako bidean, 50 kilometroko aldeko errepidea geneukan. Sort-en bazkaldu, eta El Cantó mendatera bidetan hartu dugu atseden. 20 biztanleko Llagunes herritxoan. Abenturako lehen zaparrada serioa bota digu gainera; eskerrak eguneko etapa amaituta geneukan!

Bosgarren etapa. Kataluniatik Andorrrarako bidea osatu behar genuen. Hasteko, El Cantó mendatea igotzen amaitu eta La Seu d'Urgell igarota sartu gara Andorran. Auto dextentekin egin dugu topo. Baita ziklista profesionalekin ere. Dozena erdi bat, gutxienez

- 1 Ahuski (1.085 m.)
- 2 Marie Blanque (1.035 m.)
- 3 Aubisque (1.709 m.)
- 4 Tourmalet (2.115 m.)
- 5 Hourquette d'Ancizan (1.564 m.)
- 6 Peyresourde (1.563 m.)
- 7 Eth Portillon (1.291 m.)
- 8 La Bonaigua (2.072 m.)
- 9 El Cantó (1.720 m.)
- 10 La Gallina (1.910 m.)
- 11 La Comella (1.347 m.)
- 12 Llac Engolasters (1.650 m.)
- 13 Envalira (2.408 m.)
- 14 Alt de Toses (1.787 m.)
- 15 Canes (1.120 m.)

0 [KILOMETROAK] 800

DATUAK

- **Etapakopurua**
7
- **Kilometro kopurua**
808 km.
- **Desnibela**
+ 16.871 m.

IBILBIDEA

- 1) **Irun-Arette**
128km | 2.270 m.
- 2) **Arette-Luz S.S.**
113km | 2.680 m.
- 3) **Luz-Bagneres de L.**
99km | 2.961 m.
- 4) **Bagneres-Sort**
118km | 2.660 m.
- 5) **Sort-Andorra**
102km | 2.645 m.
- 6) **Andorra-Ripoll**
125km | 2.330 m.
- 7) **Ripoll-Tossa de Mar**
123km | 1.325 m.

ezagutu ditugu! Beldurrez hasi dugu etapa, baina uste baino errazago burutu dugu La Gallina, La Comella eta Engolasters-eko ibilbide malkartsua.

ARAZOAK

Seigarren etapa. Envalira luzea igo, Frantziako Puy-morens mendatetxoan sartu irtena egin, eta La Molina estaziora igotzera gindoazela "krak" hautsi da Endikaren katea. Aiii amaaa! Arazoa konpontzen saiatu gara baina ezin izan dugu nahi genuen bezala doitu eta matxura handiago baten beldurrez, bultzaka eraman dugu helmugaraino. Nola hala, baina iritsi gara Ripoll-era eta kasualidadez, *Pana* zetorkigun bisitan. Zinez eskertu dugu mekanikari gisa duen abilezia.

Zazpigarren eta azken etapa. Ripoll-etik Tossarako bidean gozatu egin dugu. Hortik aurrerakoak, betirako gordeko ditugu gure oroimenean. *Ez gaittuk 11* izan, baina asko oroitu gara zutaz bidean; besarkada bat *Ara!*



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Bezero euskaldunek eskubiderik ez, Arrasateko MRWn

Migel Egaña Errasti

2022ko ekainaren 30ean Arrasateko MRW paketeria-enpresara joan behar izan nuen, Gipuzkoa etorbideko 38an daukaten bulegora, fardel bat jasotzera.

Bulegora sartu nintzenean, bertan zegoen neskak espainieraz galdetu zidan ea zer nahi nuen. Nik, euskaraz, fardel bat jaso nahi nuela erantzun nion. Espainieraz hitz egiteko esan zidan berak, bestela ez zidala ulertzen. Nik, bigarrenez ere euskaraz, zer nahi nuen adierazi nion, baita hirugarren batez ere.

Nire jarrera garbia zen: ni bezeroa nintzen eta euskaraz zerbitzatua izateko eskubidea nuen; beraz, enpresak jarri behar zituen zerbitzua euskaraz emateko bitartekoak.

Ordura arte lasai zihoan kontua. Une horretan beste lankide bat agertu zen, euskaraz bazekiena. Aurrez atenditu ninduenak azken honi eskatu zion nitaz arduratzeko. Eta orduan lehertu zen arazoa: hasieran euskaraz hasi zitzaidan hizketan, ondoren ingelesez hitz egitera pasatu zen (hitz gutxi batzuk), eta, jarraian, espainieraz jarraitu zuen, esanez ez neukala errespeturik, euskaraz ez zekien bati euskaraz ari nintzaiolako. Nik erantzun nion bezeroa nintzela eta eskubidea neukala euskaraz atenditua izateko. Behin eta berriz azaldu nion nire nahia, eta berak bereari eusten zion.

Ikusirik, nire errespetu falta argudiatuta, hark ez zeukala ni atenditzeko asmorik, azkenean alde egin nuen bila joan nintzen fardela hartu gabe.

Bukatzeko, adierazi nahi dut, nola, beste behin ere, marjintua izan naizen euskaraz hitz egitearren, Arrasateko bulego batean, MRW-k daukan bulegoan hain zuzen. Eta, bide batez, ozen aldarrikatu nahi dut euskal hiztunok oraindik ere ez dauzkagula bermatuta hizkuntza-eskubideak.

OHAR ETA DEIALDIAK

• Haurren danborradako entseguak

Irailan hasiko dira haurren danborradako entseguak: **irailaren 8, 13, 15, 20 eta 22an** izango dira Eltzian (18:30-19:30).

Azken bi entseguak (**irailaren 20an eta 22an**) danbor/barrilekin egingo dira, eta **larruzko gerrikoa** eraman beharko dute. Larruzko gerrikoa danborrada egunean ere beharko dute.

ARROPA BANAKETA

Konpartsetako arropak irailako entseguetan banatuko dira. Aldez aurretik jakinaraziko da entsegu bakoitzean zein konpartsaren arropa banatuko den. Guztira, 164 haurrek eman dute izena aurtengo danborradan irteteko eta beti bezala, 6 konpartsatan banatuta irtengo dira.

Haurren Danborrada **irailaren 24an** ospatuko da (eguraldi txarra egingo balu, irailaren 25ean ospatuko litzateke).



• Nagusien danborrada

Irailaren 14, 19, 21 eta 26an egingo dira nagusien danborradako entseguak, Eltzian (20:00). Hilaren 26koa entsegu orokorra izango da.

ORDUTEGI ALDAKETA

Nagusien danborradaren hasiera ordua orduerdi aurreratzea erabaki dute antolatzaileek. Hala, irailaren 28ko **gaueko 22:30etan** hasiko da denborrada, Eltzian.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com

Bandera Nafarra Oñatin

Nabarraldeko oñatiarrak

Udalak horrela erabakita, uztailearen 19an bandera nafarra ezarri genuen ikurrinarekin batera. Ez da Nafarroako Foru Erkidegoko bandera; sakonagoa da bere esanahia.

Urteurren sonatu bat baliatu genuen altxamendurako: euskal erresistentziaren ikur den Amaiurko defentsaren amaieraren 500. urteurrena.

Konkista prozesu betean, 100-150 nafarrek 5.000tik gorako ejerzitu espainiarrari aurre egin zioten bospasei egunez. Ejerzitu honen parte zen Gebarako konde oñatiarra, "bere" jendearekin. Euskaldunak, euskaldunen kontra. Nafarroa independentea defendatzen batzuk, espainiarren bandoan besteak. Zer dela eta?

Atzerago egin behar dugu erantzun bila: noiztik oñatiarrok espainiartuta? 1200eko konkista prozesuan gertatu zen. Amaiurren bezala orduan ere, gure borondatearen kontra, biolentzia erabilita, Nafarroa asketik erauzi gintuzten: zatikatu eta menperatu.

Memoria egiteko altxatu genuen bandera. Euskaldunok estatu propio batean bizitako independentzia garaia gogoratzeko.

Bikote aproposa egiten du independentzia grinaren ikur den ikurrinarekin: izana gogoratu, batek; gogoa izan, besteak: iragana eta etorkizuna bat eginda, orain eta hemen.

Izan ginen, eta izan gogo gara.



Aitor Burciok irabazi du kartel lehiaketa

Hamar lan aurkeztu ziren Udalak deitutako lehiaketara, eta Aitor Burciorenak jaso zuen herritarren boto gehien. Guztira 497 bozka eman zituzten herritarrek, eta horietatik 124 eskuratu zituen goiko irudiak.

Horrenbestez, 500 euroko saria jasoko du Aitor Burciok eta, gainera, bere irudia etxe guztietara banatuko den San Migel eta Errosarixoa jaien egitarauaren azalean agertuko da. Azken orduko ustekaberik ez bada, irailaren 19ko astean banatuko da etxe guztietara.



Jose de Azpiazu Musika Eskola

IKASTAROA: URRIA - EKAINA



PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALA

IZENA EMATEA eta INFORMAZIOA:
irailaren 2tik 19ra

idazkaritza@jazpiazumusikaeskola.com
943 78 51 74 telefonoan
astelehen, asteazken, ostiral 17:00etatik 19:00etara

www.jazpiazumusikaeskola.com

lotuan - soltean - jauziak - kontradantzak - ingurutxoak - Baztango mutildantzak
plazako dantzak - sokadantzak ...



OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

Gure ekintzen berri emango duen atala...

HAUR ETA GAZTERIAKO UDAL ZERBITZUEN UDA!

Aurtengoa ere urte eta uda zaila izan bada ere, oztopoak oztopo uztailean zehar, azkenengo urtetan bezala, haur eta gaztetxoentzako hainbat ekintza burutu ahal izan ditugu. Hala nola, Udaleku irekiak, Arte Udalekuak, Ludoteka, Gaztelekuko zerbitzu ezberdinen hainbat irteera. Ahal izan dugun neurrian topera disfrutatu dugu eta horren erakusle dira ondorengo argazkiak.

Milesker gurekin urtero jartzen duzuen konfidantzagatik, eta baita ere era batera edo bestera parte hartu duzuen guztiei, primeran pasatu dugu eta!!



behe barrua



"Gizarte eraldaketarako esperientazio gunea martxan izango da 22-23 ikasturtetik aurrera"

Irekiera ekitaldia urtea amaitu aurretik izango den arren, irailetik egongo dira erabilgarri gune berriak.

Zer da Behebarrua?

L.B: Azken urteetan martxan jarri diren hainbat proiektu modu egokiagoan gauzatzeko gunea da, **aniztasuna** oinarri izango duten pertsonen arteko interakzioen bidez, ikasleen ibilbidea aberasteko espazioa. Gizarte eraldaketarako esperientazio gunea izango da eta 22-23 ikasturtetik aurrera martxan egongo dena.

Zer ekarpen egingo die Elkar Heziko haur eta gazteei? Eta herriari?

L.A: Elkar Hezi proiektua indartuko du Behebarrua, haur eta gazte BAKOITZARI aukerak eskainiz: ikaskuntza dialogikoaren bidez gaitasunak eta talentuak garatzeko, barnetik hazteko, askatasunez bizitzen ikasteko, biolentziarik gabeko **bizikidetzan**, finean, errespetuan eta berdintasunean oinarritutako jendar-tea jomugan izango duen eraldaketa sustatuko duten herritar libre izan daitezten.

Zer da erein?

L.A: Ume bakoitzaren adimenaren dimentsio guztiak, **talentuak...** ahalik eta egokien gara daitezten AUKERAZ betetako espazioa da.

6 urte daramatzagu eskolan **Estimulazio Goiztiarra** jorratzen, honen bitartez, etorkizunean garatuko dituzten gaitasunentzat oinarri sendoagoa eraikitzen laguntzen zaie haurrei. Zenbait programa lantzen ditugu: musikala, matematikoa, irakurketa... eta OINARRIZKO PROGRAMA deritzona. Azken hau da bereziki, EREIN espazioan garatuko dena.

Zer da izan?

L.A: **Barnekotasuna** lantzeko gunea/unea da. Arretatsuak, sakonak, esnatuak, kontzienteak eta barrutik sendoak diren pertsonak hazi eta hezi nahi ditugu: horrek guztiak egingo ditu benetan sentibera, adeitsu, konfiantzadun, ireki, libre eta autentiko.

Besteak beste, **Mindfulnessa** praktikatzeko zein **irakurketa-plana** garatzeko espazio aproposagoa izango da hau

Zer da ekirin?

L.B: Beste gizarte bat irudikatzen eta utopiarantz abiatzeko topalekua da. Bertan, **Ikas Komunitate** barruan txertatzen diren Jarduera Arrakastatsu deritzonak aurrera eramango ditugu, Talde Elkarrengilek, Tertuliak, Batzorde bilerak, Asanbladak, Liburutegi tutorizatuak, 0 biolentzia 0 urtetik proiektua... **Ebidentzia Zientifikotan** oinarritutako jarduerak alegia.

Baina ez hori bakarrik, **ESPERIMENTAZIO GUNE** ere izango da, bakoitzak dituen zaletasun, talentu, proiektuak garatzeko gunea, beste batzuekin batera **SORTZEKO** elkargunea.

Are gehiago, herri osora irekia izateko bokazioz jaiotzen den gunea dugu, hartara, familiek, ikasle ohiek, herritarrek eta bestelako eragileek ere izango dute bertara gerturatzeko parada.



Leire Arietealeanizbeaskoa, HHko irakasle eta Estimulazio Goiztiarreko arduraduna eta Leire Barbero, BHko irakasle eta komunikazio arduraduna



Euskal Herriko eta Errioxako 32 pilotari 39. SAN MIGEL TXAPELKETAN

Irailaren 1ean hasita jokatu da 39. San Migel Txapelketa. **Ostegunetan** (19:00) eta **larunbatetan** (17:00) jokatu dira partiduak. Irailaren 1, 3, 8 eta 10ean final-laurdenak jokatu dira, eta irailaren 15 eta 22an final-erdiak. Finalak Errosarixo domekan (urriak 2) izango dira, 17:00etan hasita, Zubikoa pilotalekuan, beti ere. Bi kategoriatan (Jubenilak eta sub-23) jokatu da txapelketa, eta Euskal Herriko nahiz Errioxako 32 pilotarik hartuko dute parte. Tartean, bi oñatiar: **Peru Etxegarai** (jubenila) eta **Iñigo Erle** (sub23).



Iñigo Erle eta aurtien profesioaletan ari den Unai Alberdi azpeitiarra nagusitu ziren iaz sub-23 mailan

Ane Madina, Espainiako txapelketako finalean

Ane Madina igerilariak lan bikaina egin zuen uztailan Sabadellen jokaturako Espainiako txapelketetan. Lau probatan parte hartu zuen eta bitan (50 Libre eta 100 Bizkar) finalean sartu zen.



Gipuzkoako aizkolari txapelketa jokatu da Herri Egunean



Herri Kirolen federazioak antolatuta, Gipuzkoako 1. mailako aizkolari txapelketa jokatu da Oñatin, urriaren 1ean, Herri Egunean. Sei aizkolari lehiatuko dira: *Julen Alberdi, Iñaki Azurmendi, Mikel Larrañaga, Ugaitz Mugerza, Eneko Otaño* eta *Suharri Rodríguez*. Kanaerdiko lau enbor, 60 ontzako beste lau, eta 72 ontzako bi moztu beharko dituzte.

Oñatiko mendi martxa irailaren 17an

Irailaren 17an egingo da Oñatiko VIII. Mendi Martxa. Ibilaldi luzea (31,2 km) goizeko 7etan hasiko da, Foruen plazan, eta ibilaldi motza (21,7 km) goizeko 8etan.

Herriko pilota txapelketa, azken txanpan



Azken urteetako geldialdiaren ostean martxan da berriz ere Txosna batzordeak antolatzen duen herriko pilota txapelketa, gizonezkoetan (33 bikote) nahiz emakumezkoetan (6 bikote). Ekaina eta uztailan zehar ligaxkako partiduak jokatu ziren, eta irailarekin batera azken kanporaketak eta finalak jokatu dira.

EMAKUMEAK

Emakumezkoen txapelketa azken txanpan dago, eta ligaxkako lau bikote onenen artean jokatu dira final aurrekoak **irailaren 16an** eta **23an**, plazako pilotalekuan.

GIZONEZKOAK

Gizonezkoen dagokienez, ligaxkako 16 bikote onenen artean jokatu dira kanporaketak, **irailaren 5, 7, 9, 15, 16** eta **23an**. **Finalak**, emakume zein gizonezkoena, **irailaren 30ean** jokatu dira. Gogoratu, bikote bakoitzean pilotari federatu bakarrak joka dezakeela, eta herrian pilota sustatzea dela txapelketaren helburua. Beraz, dei egiten zaie herritarrei irailan zehar plazako pilotalekura gerturatu daitezen.

Profesional ohien arteko partidua

Irailaren 30ean jokatu dira herriko pilota txapelketako finalak. Aurrena bazkaria egongo da berdura plazan, eta berritasun moduan, profesional ohien arteko partidua jokatu da: **Xala-Azanza / Aitor Mendizabal-Pascual**.

Bestalde, irailaren 16an emakume profesionalen **Tantaz tanta** txapelketako partidu bat jokatu da plazako pilotalekuan



oñabike.com

Otadui 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL ARROPAK

TALDEKAKO FITNESS EKINTZAK

Zubikoa kiroldegia 2022-2023

	Astelehena				Asteartea				Asteazkena				Osteguna				Ostirala					
	Taupada	Arnas	Aldatz	Ziburu	Gerriko	Taupada	Arnas	Aldatz	Ziburu	Taupada	Arnas	Aldatz	Ziburu	Gerriko	Taupada	Arnas	Aldatz	Ziburu	Aldatz			
8:15																						
9:15				Pilates Terapeutikoa				Hypopresiboak egun 1	Plates Oihualak									Hatha Yoga egun 1	Plates Oihualak	Gina Tanso		
10:15				HIT egun 1		Fit bike			Body Tao egun 1										TRX egun 1	Gina Tanso		
11:15				Master Gimnasia				Body Tono egun 1	Master Gimnasia										Body Balance egun 1	Master Gimnasia		
15:00									Plates Oihualak											Plates Oihualak		
17:15	Fit bike			Body Tono egun 1	Krossfit egun 1			Kore Stretch egun 1	Plates Oihualak	Fit bike				Body Tono egun 1	TRX egun 1				Kore Stretch egun 1	Plates Oihualak		
18:15				Hypopresiboak egun 1	Body Balance egun 1	TRX egun 1	Gimnasia Egokitua	Fit bike						Gimnasia Egokitua	Body Balance egun 1	Krossfit egun 1	Hatha Yoga egun 1	Fit bike		Zumba	Plates Oihualak	
19:15				Body Tono egun 1	Pilates Terapeutikoa		Fit bike		Zumba step	TRX egun 1				Body Tono egun 1	Pilates Terapeutikoa	Body Balance egun 1	Fit bike			Zumba step	Krossfit egun 1	
20:15				HIT egun 1	Plates Oihualak				Body Tao egun 1	Krossfit egun 1				Kore Stretch egun 1	Plates Oihualak						Kore Stretch egun 1	TRX egun 1

Body Tono, Body Balance, TRX, Kore Stretch, Hypopresiboak, Aero Yoga, HIIT, Krossfit, Hatha Yogag, Body Tao, Gimnasia Terapeutikoa, Pilates, Fit bike, Zumba, 3. Adineko gimnasia, eta Gimnasia egokitua. Hamasei jarduera edo ekintza ezberdinetan aritzeko aukera eskaintzen du Zubikoa kiroldegia, 2022/2023 ikasturtera begira. Goiko taulan ikus daiteke zein ordu eta egunetan izango den bakoitza.

IZEN-EMATEA

Irailaren 1etik 8ra irekiko da izena emateko epea, kiroldegiko harreraren edo internetez (www.zubikoakiroldegia.onati.eus). Taldeak 18 lagunekoak izango dira, gehienez. Salbuespenak: *Zumba, Body Tono* eta *Body Balance* jardueretan 24ko taldeak onartuko dira, eta *Fit Bike*-n 30ekoak. Arau berriak indarrean sartzen ez bada, jarduera guztiak musukorik gabe egin ahal izango dira. Bakoitzak bere esterilla, toalla eta hidratatzeko ontzia eramatea gomendatzen da.

IRAILA	Astelehena 12			Asteartea 13			Asteazkena 14		
	Aldatz	Ziburu	Gerriko	Taupada	Aldatz	Ziburu	Aldatz	Ziburu	Gerriko
8:15									Krossfit
9:15		Pilates hastapena			Hypopresiboak	Pilates hastapena	Gimnasia terapeutikoa	Pilates hastapena	
10:15		Pilates + oihualak			Hatha Yoga	Body Tao	Body Tono	TRX	
11:15				Fit bike					
15:00					Pilates + Oihualak				
16:00									
17:15	Body Tono	Krossfit	Pilates hastapena		Kore Stretch	Pilates hastapena	Body Tono	TRX	Pilates hastapena
18:15	Body Balance	TRX	Hypopresiboak	Fit bike	Zumba	Pilates + Oihualak	Body Balance	Krossfit	Hatha Yoga
19:15	Body Tono	Pilates hastapena		Fit bike	Zumba Step	Pilates hastapena	Body Tono	Pilates hastapena	Body Balance
20:15	HIIT	Pilates + Oihualak			Body Tao	Krossfit	Kore Stretch	TRX	

ATE IREKIAK / IRAILAK 12-14

Irailaren 12, 13 eta 14an fitness jarduera ezberdinak probatzeko aukera egongo da, ondoko taulan adierazten den egun eta orduetan. Ekintzak dohainik dira, baina izena ematea gomendatzen da, lekua ziurtatzeko.



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648
onati@gualbiasesores.com
-
www.gualbiasesores.com



MARTIN ZALAKAIN

Barojaren '**Zalakain abenturazalea**' nobela ardatz duen ikuskizuna taularatuko dute Zubikoa kiroldegian, **irailaren 17an**.

Literatura, dantza, antzerkia eta musika uztartzen dituen ikuskizuna da, eta berau ikusteko azken aurreko aukera izango da.

Argia dantza taldearen eta Artedrama arte eszenikoen plataformaren zuzendaritzapean sortutako *Martin Zalakain* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dugu irailaren 17an, Zubikoa kiroldegian (19:30). Pío Barojaren (Donostia, 1872-Madril, 1956) *Zalacain el aventurero* eleberriko protagonista Martin Zalakain mitikoaren abenturak kontatzen ditu dantzaren, antzerkiaren eta musikaren bidez.

Juan Antonio Urbeltz antropologo eta folklorista nafarrak sortutako ikuskizuna da. Harkaitz Cano idazleak egin du Barojaren eleberraren egokitzapena, eta Ander Lipus antzerkilari eta aktoreak jardun du eszena zuzendari lanetan. Oholtza gainean, berriz, ehun lagun ikusiko ditugu, dantzari eta musikari, dantza dramatizatuaren inguruan.

Dantza dramatizatu diogu, izan ere, ohiko dantza emanaldi batetik haratago doan ikuskizuna baita *Martin Zalakain*, eta bi hitzetan definitu beharko bagenu, nobela dantzatu bat dela esango genuke.

ZALAKAIN ABENTURAZALEA

Esan bezala, Pío Barojak 1908an idatzitako *Zalakain abenturazalea* nobela klasiko ezaguna du abiapuntu ikuskizunak. *La casa de Aitzgorri* (1900) eta *El mayorazgo de Labraz* (1903) eleberriekin batera, Pío Baroja idazle donostiarraren *Tierras Vascas* trilogia osatzen zuen azken nobela izan zen eta, Bigarren Karlistadan girotua, Martin Zalakain gaztearen bizipenak eta abenturak kontatzen ditu.

Martin Zalakain Urbia izeneko fikziozko herriko gazte euskalduna da. Mutiko bihurria. Ama hil ondoren, Migel Tellagorri ostalari zahar eta zirikatzaileak heziko du. Martinek gorroto du Carlos Ohando, herriko jauntxoak, bere arreba Iñasiz maiteminduta dagoena. Iñasi Carlosen eskuetan erori ez dadin, Martinek bere adiskide Bautista Urbiderekin ezkontzea lortuko du. Ezkonberriak Iparraldeko Zaro izeneko herrira joango dira bizitzera, eta hortik aurrera Bautistak eta Martinek zernahi abentura biziko dituzte.



100 dantzari eta musikari, dantza dramatizatuaren inguruan



Zalakain eta Ohando familien arteko etsaitasuna izango da ikuskizuneko narrazioaren hari nagusietako bat, baita Martinen beraren eta Kattalin Ohandoren arteko maitasun istorioa ere. Baina garaia ere kokatzen du ikuskizunak eta, hala, Karlistadaren baitan sortutako gatazkak eta gertaerak, eta estraperloarekin lotutako gorabeherak ere irudikatuko dituzte dantzariak. Gozotik eta tragikotik, bietarik du asko Zalakainen bizitzak. Ez du ekintzarik falta, ez eta ospakizunik ere.

Donostiako Argia taldeko dantzariak gain, Euskal Herriko beste hainbat dantza taldeetako kideek ere parte hartzen dute ikuskizunean, eta musika arloari dagokionez, Argia-ko musikariekin batera ariko dira Ezpelurreko gaiteroak, Dugunako Musikariak (txistua, haize tresnak eta perkusioa) eta Plectro soka taldea.

Martin Zalakain ikuskizuna 2017ko azaroan estreinatu zen Bilboko Arriaga antzokian. Gerora Euskal Herriko hainbat herritan aurkeztu zuten, arrakasta handiz beti ere, baina, pandemiak behartutako bi urteko etenaren ondoren, iazko abenduan ekin zion ibilbide berriari, eta Oñatikoa izango da azken aurreko emanaldia, urriaren 23an taularatuko baitute azkenekoz, Donostiako Victoria Eugenia.

Oñatiko emanaldia Zubikoa pilotalekuan izango da (19:30) eta sarrerak www.oñati.eus webgunean eta Txokolateixan daude salgai 10 eurotan.



Juan Antonio Urbeltzek sortutako ikuskizuna da. Ander Lipus da eszena zuzendaria, eta Harkaitz Canok egin du Pío Barojaren nobelaren egokitzapena.

▲
On Pío (Baroja) nobelagilearen papera gorpuzten duen Josu Camarak egiten du kontakizunaren gidari lana

KOMIKIA TERTULIXAN

irakurle talde berria sortuko du

Udal Liburutegiak

Irailaren 5etik 23ra bitartean eman behar da izena

Komikiaren inguruko irakurle taldea sortu nahi du Udal Liburutegiak ikasturte berriarekin batera. Komikia hazkunde ikusgarria ari da ezagutzen, bai argitalpen kopuruari dagokionez, kalitateari dagokionez, eta baita irakurle kopuruari dagokionez ere. Udal liburutegian haur eta helduen komikien atalak asko hazi dira azken urteotan, eta bertako irakurketa taldeetan leku berezia egiteko ordua iritsi dela uste dute liburutegiko arduradunek.

Beraz, ohiko Tertulixan irakurle taldeei (euskarazkoa eta gaztelaniazkoa) hirugarren talde bat gehituko zaie urritik aurrera. Talde hauetakoren batean parte hartzeko izen-ematea **irailaren 5etik 23ra** irekiko da. Telefonoz (943716111), whatsapppe (688732826), emailaz (liburutegia@onati.eus) edo liburutegiko harreran bertan eman daiteke izena, telefono zenbakia eta e-posta helbide bat adieraziz. **Ohar garrantzitsua:** aurreko urteetako irakurketa klubeko partaideek ere izena eman behar dute.

UDAL LIBURUTEGIKO TERTULIXAN TALDEAK

2022/2023 IKASTURTERAKO

Tertulixan euskaraz



- **Dinamizatzailea:** Miriam Luki
- **Egunak:** urriak 18, azaroak 15, abenduak 13, urtarrilak 24, otsailak 7, martxoak 14 eta apirilak 18.
- **Ordua:** 18:30-20:00

Tertulixan gaztelaniaz



- **Dinamizatzailea:** Mónica Leiva
- **Egunak:** urriak 25, azaroak 29, urtarrilak 31, otsailak 28 eta martxoak 28.
- **Ordua:** 18:30-20:00

Komikia tertulixan



- **Dinamizatzailea:** Kike Infame
- **Egunak:** martxoak 21, apirilak 19 eta maiatzak 16.
- **Ordua:** 18:30-20:00

HITZALDIAK

Osasunaren defentsa eta promoziorako INFORMA-TU elkarteak hiru hitzaldi interesgarri antolatu ditu iraileko astearteetarako.

IRAILAK 6, ASTEARTEA SANTA ANA, 18:30



'**Osasuna gure esku**' (La salud en nuestras manos) izenburua duen hitzaldia emango du nekazari eta sendabelarretan aditua den kataluniarrak. Sarrerak (7€). **Aforoa beteta dago.**

IRAILAK 13, ASTEARTEA SANTA ANA, 18:30

'**El mundo en la encrucijada**' hitzaldia emango du EKAI Taldeko lehendakari Adrian Zelaiak. Eredu neoliberalaren agortzeaz, kontrolatu gabeko herrialde emergenteen mehatxuaz (Txina, Errusia...), eta herritarren kontrol ideologikoa gero eta zailago ikusten duten elite korporatiboek jardungo du. Sarrera dohainik.



IRAILAK 20, ASTEARTEA SANTA ANA, 18:30

'**Nola gaititu zure beldurrak**'. Hizlaria: Lourdes Relloso, psikologo klinikoa. Sinesmen mugatzaileez, eta beldurrari aurre egiteko estrategiez hitz egingo du. Sarrera doan.



Mekalki
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

Gure beharra baduzu, ondo-ondoan gaituzu.

Hain ondo zaindu nahi
zaituztegu,
**Arrasate/
Mondragonen**
bertan ere artuko zaitu
Zuatzu Klinikako
espezialista-taldeak,
hogei urtetik gorako
esperientzia duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Bularretako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.



Nafarroa Etorbidea, 4 (behea) . 20500 Arrasate/Mondragon
943 792 018 . www.clinicazuatzu.com



Miguel Korkostegi eta Nikolas Etxeberria, Oñatiko Zizelkatzaileak taldeko kideak

Zizelkatzen ikasteko aukera

Oñatiko Zizelkatzaileak taldeak antolatuta, egurra landu eta forma ematen ikasteko aukera egongo da irailaren 14tik aurrera, Eltzian

Ikasturte berriarekin batera, zizelkatzen ikasteko aukera izango dugu Eltzian, Oñatiko Zizelkatzaileak taldearen egoitzan. Hiru hilabeteko ikastaroa izango da, irailaren 14tik abenduaren 14ra, eta asteazken arratsaldeetan (14:45-16:45 edo 17:00-19:00) izango dira saioak. Oñatin aski ezaguna den Javier Arrieta zizelkari zegamarra izango da maisua, ohi bezala, eta egurra lantzen ikasi edo probatu nahi duten herritar guztiei irekita dago. "Edozeinek egin dezakeen aktibitate bat da hau, berdin gizon, berdin emakume, nagusi ala gazte. Denbora pasa polita da, eguneroko zurrunbilatik deskonektatu eta erlaxatzeko balio duena, eta, gainera, zure eskuekin egurrari bizia emateko gai zarela ikustea pozgarria da. Beraz, animatu egiten dugu jendea proba egitera", adierazi digute Oñatiko Zizelkatzaileak taldeko Miguel Korkostegi eta Nikolas Etxeberriak.

Zizelkatze ikastaroaren prezioa 60€-koa da (langabetuek 40€ eta elkarteko bazkideek 50€), eta izena emateko zizelkatu@gmail.com helbidera idatzi behar da.



Ingeleseko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Arantzazuko Ama, 3 behea • 20560 OÑATI (Gipuzkoa)
943 53 36 57 • 4sgoiena@gmail.com

Ikasturte hasiera: Irailak 12

Maite Aiestui Kortabarria
Irakaslea

www.4sgoiena.com

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

OÑATIKO ZIZELKATZAILEAK

Duela zazpi urte eratu zen Oñatiko Zizelkatzaileak taldea, ordura arte Legazpiko taldean ari ziren herritar batzuen ekimenez. Eltzian lokal bat eskatu eta elkarte sortzea erabaki zuten, jendeak egurra zizelkatzen ikasteko eta praktikatzeko aukera izan zezan, kanpora joaten ibili gabe.

Gaur egun 30 lagun biltzen ditu Oñatiko Zizelkatzaileak elkarteak, eta Eltzia lokalaren solairuan dute egoitza, egurra lantzeko hainbat mahai eta erremintak gordetzeko takila banarekin. Elkarren artean partekatzen dituzten tresnak ere (taladroak, zerrak, fresadorak...) ere badituzte lokalean.

Urtean 50€-ko kuota ordaintzen dute bazkideek, eta, trukean, lokaleko giltza daukate, beraien afizioa lantzera nahi bestetan joan ahal izateko. Bazkide egiteko, elkarteak antolatzen duen ikastaroetakoren batean parte hartzea eta urtebeteko jarduna eramatea eskatzen da.

Zizelkatzaile elkarteak Udalaren dirulaguntza jasotzen du urteko dinamika aurrera eramaten laguntzeko, eta, trukean, hiru ikastaro antolatzen ditu urtean zehar, eta bi erakusketa ere egiten ditu, Herri Egunean eta Gabonetan. Gainera, Oñatiko Artzain Txakur txapelketako hiru garaikur nagusiak ere egiten dituzte, antolatzailerik hala eskatuta.

"Gure elkarteko atea zabal-zabalik daude proba egin nahi duten herritar guztientzat. Gehienak jubilatutako gara, baina azkenaldian gazteak ere animatzen hasi dira, eta baita emakumeak ere, zorionez", esan digute Korkostegik eta Etxeberriak, juntako kideak. "Edozeinek egin dezakeen aktibitatea da hau, eta oso egokia da egunerokotik deskonektatzeko eta erlaxatzeko. Gero, norberaren abileziaren eta eskaintzen dion denboraren araberakoak izaten da lanen kalitatea". ■

Artzain txakur txapelketarako garaikurrak prest

Oñatiko Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketako lehen hiru sailkatuentzako garaikurrak herriko zizelkatzaile taldeak egiten ditu 2017az geroztik. Ondoko irudikoa bezalako hiru taila egiten dituzte, tamaina ezberdinekoak, txapelketako lehen hiru sailkatuentzat. Aurten ere prest dituzte irailaren 25ean jokatu den artzain txakur txapelketarako sariak.



Zizelkatze ikastaroa irailtik abendura

- Irailaren 14tik abenduaren 14ra
- Asteazkenetan: 14:45-16:45 edo 17:00-19:00
- Irakaslea: Javier Arrieta
- Prezioa: 60€ (bazkideak 50€, langabetuek 40€)
- Izen-ematea: zizelkatu@gmail.com

Herri Eguneko artisau erakusketa

Urtero bezala, Herri Egunean Sancti Spiritus unibertsitatean egiten den artisau erakusketan egongo dira Oñatiko Zizelkatzaileak taldeko kideak, urtean zehar egindako artelanak erakusten, eta nahi duten herritar guztiei informazioa ematen.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



ANTZERKIA

IRAILAK 4 / 19:00

'TURISTREATZEN'

Trapu Zaharra taldearen 'Turistreatzen' kale ikuskizuna. [Errementari plazan.](#)

KONTZERTUAK

IRAILAK 23 / 23:00

ZEA MAYS

Bilboko rock taldearen kontzertua herriko jaien atarian. [Foru enparantzan](#)

HITZALDIAK

IRAILAK 8 / 19:00

'KOBAZULOAK. ARANTZAZUKO ONDARE EZKUTUA'

Hizlaria: Aloña Mendi Espeleologia Taldea. [Arantzazuko auzo-etxean.](#)

BISITA BEREZIAK

IRAILAK 17 ETA 18 / 10:00

ILUNPEKO ALTXORRAK

Arrikruzten familia giroan (+3 urte) egiteko bisitak. Erreserbak: 943082000

DANTZAK

IRAILAK 18 /

HAUR DANTZARIEN EGUNA

Oñatz taldeak antolatuta. [Herriko kaleetan.](#)

DANBORRADA

IRAILAK 24 / 18:00

HAURREN DANBORRADA

Haurren danborrada. [Herriko kaleetan.](#)

ARTZAIN TXAKURRAK

IRAILAK 25 / 10:30

62. ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA

Santa Lutziako zelaian.

BIDEBARRIETAKO JAIXAK

IRAILAK 2

19:00 Txorimaluak, pintxopoteua eta garagardo artisauen dastaketa; 21:00 *Beerpong* txapelketa; 22:00 Kontzertuak (*La Rekba, Inguma, Dirty Old Gasteiz* eta *Arene 6*).

IRAILAK 3

11:00 Puzgarririk eta umiendako esku jolasak; 17:00 MUS txapelketa; 18:30 Txorimaluak; 20:00 Bafle poteua; 22:00 Kontzertuak (*Laket erromeria, DJ Fresamorango* eta *DJ Trex*).

IRAILAK 4

12:00 Oñatz dantza taldeko gazteen erakustaldia; 14:00 Auzo bazkaria; 19:00 Antzerkia Trapu Zaharrak taldearen 'Turistreatzen'; 21:00 Zozketa eta jaiaren amaiera.

SAN MARTINGO JAIXAK

IRAILAK 16

18:59 Martintxo txarrixaren subidoia; 19:07 Txorimaluak, Jose de Azpiazu musika eskolako muskarixekin; 19:13 Pintxopotia; 22:04 Kontzertuak (Unidad Alavesa + Larru Beltzak + Penny Fleck).

IRAILAK 17

11:00 Txikitrail (izen-ematea, 10:30); 12:00 Oñatz dantza taldeko haurren erakustaldia; 12:30 Herri kirolak; 14:30 Auzo bazkaixa; 16:00 MUS txapelketa; 16:00 Ametsgile, Betzaida Urtaza ipuin kontalarixa; 17:00 Tatuaje tailerra; 18:30 Txorimaluak, Arrasateko dultzaineruekin; 18:30 Garagardo ferixia; 19:00 Kontzertua (Deiedra + Mentertz); 21:00 Martintxo txarrixaren bajonazua.

ATZEKO KALEKO JAIXAK

IRAILAK 8

19:00 Pintxopotea

IRAILAK 9

17:30 Itxaflero jaurtiketa eta zinta lasterketa; 19:30 Txorimalo eta erraldoien kalejira. Ordu berean, presoen aldeko elkarretaratzea; 22:30 Kontzertuak (Nhil + Letagin + Lizartxo). Jarraian, DJ Pertxas & Sunset

IRAILAK 10

13:00 Auzokoen omenezko salda; 14:30 Batzordearen bazkaixa; 17:30 Sokamuturra eta poniak, Arnoren eskutik; 19:00 Garagardo dastaketa; 19:30 Txorimalo eta erraldoien kalejira; 20:30 Joseto eta Alayak elektrotzaranga; 24:00 Piroteknia saioa eta suzko zezena. Jarraian kontzertua: Los Zopilotes Txirriaos.

IRAILAK 11

15:00 MUS txapelketa Aloña tabernan; 18:00 Txorimalo eta erraldoien kalejira; 19:30 Gauargi taldearen emanaldia. Tartean boletoen zozketa; 22:00 Itxaflero jaurtiketa eta jaien amaiera

MENDI IRTEERA

IRAILAK 10 - 11

IRATI

Asteburuko mendi irteera, Aloña Mendiko mendi sailaren eskutik. Larunbatean goizeko 6:00etan Oñatitik abiatu eta Abodi (1.531m) mendia igoko dute (16,5 km / 850m+). Otsagabiako Osate kanpineko aterpetxean lo egin ostean (pentsio erdian), igandean Mendizar (1.319m) igoko dute (20 km / 830m+). Izena emateko azken eguna: **irailak 4**, alonamendi.mendi@gmail.com helbidean. Prezioa: 60€. Plaza mugatuak (30).



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserniko agia,
egurrezko labea egina



Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

EUSKARA IKASTARO BEREZIAK

Zaintzaileentzako



- **Hartzaileak:** Euskara ez dakiten (edo oso gutxi dakiten) Oñatiko zaintzaileak
- **Helburua:** Ahozko oinarrizko komunikazioa lantzea. Zaintza-lanak euskaraz egin ahal izateko oinarrizko hizkuntza-baliabideak ezagutzea
- **Iraupena:** 160 orduko ikastaroa, urritik ekinera, 5 ordu astean
- **Ordutegia:** 15:00 - 16:15
- **Matrikula:** Doan. Udalak finantziatutako ikastaroa. (Baldintza: Oñatin adinekoak zaintzen lan egitea)
- **Izen-ematea:** irailaren 1etik 23ra

Tabernari eta ostalarientzako



- **Hartzaileak:** Euskara ez dakiten (edo oso gutxi dakiten) Oñatiko taberna, ostatu eta jatetxeetako langileak
- **Helburua:** Ahozko oinarrizko komunikazioa landuko da: bezeroak artatzeko erabiltzen diren hitz eta esaldi ohikoenak
- **Iraupena:** 60 orduko ikastaroa, urritik abendura, 6 ordu astean
- **Ordutegia:** 9:00 - 11:00
- **Matrikula:** Doan. Udalak finantziatutako ikastaroa. (Baldintza: Oñatin ostalaritzako establezimendu batean lan egitea)
- **Izen-ematea:** irailaren 1etik 23ra

Informazioa: Udal Euskaltegia (Bidebarrieta kalea, 18 / 943782496 / euskaltegia@onati.eus)



YOGA hastapen ikastaroa hasiberrientzat

Yoga zer den probatu nahi dutenentzat, hastapen mailako ikastaroa antolatzen du Sanatana Dharma Oñatiko Yoga Eskolak. Zortzi eguneko ikastaroa da, irailaren 12tik 15era eta 19tik 22ra (17:00-18:30 eta 19:00-20:30). Informazioa eta izen-emateak: yogaonati@gmail.com / 610 953 794.



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ **943 78 21 16**
Irailak 23, 24 eta 25. Urriak 1, 2, 3 eta 4.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ **943 78 01 22**
Irailak 2, 3, 4, 6, 8, 12, 14, 16, 17, 18, 26 eta 27. Urriak 5 eta 6.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ **943 78 05 58**
Irailak 1, 5, 7, 9, 10, 11, 13, 15, 19, 20 eta 28. Urriak 7, 8 eta 9.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ **943 78 11 28**
Irailak 21, 22, 29 eta 30. Urriak 10 eta 11.



MERKATU TXIKIA

GARAJE bat alokatu edo erosiko nahiko nuke Portu Kaletik gertu. Deitu: 610 466 020

ETXEBIZITZA Oñatiar familia batek etxebizitza (2 edo 3 logelakoa) alokatu edo erosi nahi du. 680 398 022

ETXEBIZITZA Ukrainar emakumea, semearekin, etxebizitza alokatu nahi du. Lana badu eta erreferentziak ere bai. 676 168 661

ODOL ATERALDIA

IRAILAK 16 / 16:30-20:30
Enpresagintza fakultatean. Txanda hartzeko deitu: 943 007 884

garmendia tejas

Basozabal Industriadea 5 · N-1, km 417

20212 Olaberría (Gipuzkoa)

T. 943 161 032

www.garmendiatejas.com





(*) Itten: arrastua, pistia

>> INGO XONAU (10)

ASPALDITXUAN BURUA JASO EZIÑIK



Jon: Kaixo, Amaia, zer barri?

Amaia: Ondo esan biharko, okerragorik etxakuagu eta! Eta heu, zer moduz?

J: Aspalditxuen bajuen!

A: Zergatik, ba?

J: Aurtengo partian, biharrekuenak, hau da, osasunak, kale egin dostelako, neska! Gaiñezka egittia badakin zer dan? Ba, horixe, gaiñezka egin ñonan fan zan udazkenian eta harrezkero burua jaso eziñik ibilli naun!

A: Eztok egixa izango?

J: Ba, bai, eta, gaiñera, negu partian lanian hasi orduko Covid madarikatuak heldu xostanan eta jota mankauta itzi ninddunan. Kontaitteko moduan naguenian, pozik!

A: Bueno, bueno, bueno, ez egidak holakorik esan! Baiña, orain ja hobeto hago?

J: Bueno, esan lleken martixan pizteen hasi eta behin apirilla ezkerro bizimodu normala-edo egitten ibilli naizela.

A: Eta udia ondo fan dok?

J: Harrokerixa haundi barik, baiña bai, politto! Ahal izan doten eguzki gehixen hartu xonat aurtenguan!

A: Eta nundik nora ibilli haiz, ba?

J: Ba, etxeko laurok pentsau giñonan astebeteko urteixeria egittia Cadiz aldera, Conilera. Eguzki eta patxada billa genbiltzanan eta horixe egin xonagu: eguzkixa hartu eta patxadan ibilli. Merezi izan xon! Eta hi nundik nora ibilli haiz, ba?

A: Martin eta bixok astebete Pirinioetan eta beste bat Menorkan egon gaittuk. Lehenengo mendixan gora eta behera, eta gero egun danian plaia-eskiñan etzindda, eguzki galdatan gora begira. Hobeto ezin!

J: Pozten naun, ba, edozeiñek etxakon holako aukerarik eta!

A: Neu be bai, hi ondo ikusten hautelako. Sendo jarraitu eta egongo gaittuk! Eta ia, ba, hemendik aurrera eztoskuken holako sustorik emuten!

J: Horixe gura nik!

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIAK



Araotzeko irudi zaharrak

Orain dala 63 urte ataratako fotografia honeittan, **Araotzen auzotar asko** bizi zan artian. **Umiak eta gaztiak** ugari; **gizakume batzuk** ordurako Oñatiko **Garañeko fabrika**n ziharduein lanian, eguneroko fan-etorrixa, **Gastiasoro** txofer, kamioian egitten euela; **emakume gehixenak baserrixan** etxekeandre eta beste zeregin batzuetan. Familixak zabalak izaten ziralako, auzotik **kanpora alde egindakua**k be etziran gutxi: Legazpi, Aretxabaleta, Mondrague, Donostia edota Oñatiko kalera ez ezik, baita Txile eta Argentinara be.

Hamarkada haretan, 1953tik 1960ra bittartian, **azpiegittura inportantiak** burutu zittuain Araotzen: **pelotalekua** 1953an; Ugarandik Elizalderaiño **kamiño barrixa** 1956xan; eta **auzoko saloi-tabernia** 1959xan. Pelotalekua egin zanian, ez eguen artian elizaraiño **kamiñorik**, eta hartarako **materialak manduetan-eta** jaso bihar izan ziran betiko elizbidetik. Errotabarrin jaixotako konstruktore ezagunak, **Antonio Uriartek**, porlana, hareia eta gaiñetikua samurto osten araoztarrari, honeik auzolanian pelotaleku barrixa modutu egixein.

Zapatatik Ugaran arteraiño **kamiñua**, hiru kilometro eta erdiko ibilbide oso zaillarekin, 1930etik aurrera urratu zan. **Lehen-txuago be obra galantak** gauzatu ziran Araotz aldian modu harrigarrixan, Modragueko **Zerrajeraren** mesederako: **Jaturabeko presia** haundiketia; kilometrotako **kanal luziak**; Aitzgain-Araotzako **urtegixa**; Saratxoko iturburutik **ura** Araotz-Urrutiko **ubidera jasotia**; Aitzulo azpittik zulatutako **tunela**, eta abar. Eta lan nekoso eta ikaragarri horreittan jarduteko biharrezkua zan **makinerixia eta tresnerixia paraje malkartsuetan** gora eruan bihar izaten euen, **kamiioen laguntasun barik**. Ba, Ugarandik Elizararaiño **kamiño-zatixak**, 800 metrokuak, 25 bat urte itxoin bihar izan eben. Egixa da, tartian gerra-urtiak eta gerraoste latza egon zirala.

Gaurko bi fotografixatan **1959ko martixaren 25ian** Araotzek bizi izan eben **gertakari inportantiaren bi xehetasun** agerketan xaku: batetik, hiru urte lehenago amaittu zan Ugarandik Elizondoraiño **kamiño-zatixaren inauguraziño ofiziala**; eta bestetik, eliza aurrian eta pelotaleku onduan eraiki barri zan **auzoko saloi-alkartiarena**. Ezkerrekuan Araotzeko parrokuak, **Jose Plazaolak**, ixipua eskuan dauela, **kamiño barrixa** bedeinkaketan dihardu; atzeko illaran, ezker-eskumatan, **auzoko zahar eta gaztiak**, eta erdixan **agintarixak**: ezkerretik eskumara, **Antonio Uriarte** kontzejala eta lan honein promotoria, **Jose López**, Araotzeko maixua, **Jose Maria del Moral**, Gipuzkoako gobernadoria, **Bizente Asuero**, diputaziño **presidentia**, eta **Reyes Korkostegi**, Oñatiko alkatia; atzeko illaran herriko beste kontzejal batzuk.

Eskumako argazkixan aittatu barri dittugun agintarixak ikusi geinke, **abadetxetik saloirako bidian**, azkenengo hau **bedeinkatu eta inauguraitteko asmotan**. Ixipu-ontzixa daroian monagillua **Pedro Zubia** da.

Fotografixok Jose Luis Plazaolak ataratakuak dira eta guri Joxe Anjel Urkiaren bittartez aillegau xaku. Argibidiak Joxe Anjelek berak eta Martin Mendizabalen **Araotz, albiste eta ohiturak** liburuak eskuratu doskue. Eskerrik asko.

Altzari bat erosi eta zuk zeuk muntatu behar izatea haria saldu eta zuk zeuk jantzia jostea bezala da.



**Zerbitzu osoa
merezi duzu!**